

Andrazkoen Arratia A taldeak 2. RFEF mailan jokatu dau datorren denporaldian

Historia egin dau andrazkoen Arratia futbol taldeak 2. RFEF Mailara igotea lortuta. Maiatzaren 10ean jokatu eban igoteko bueltako partidua Pradejonen (Errioxa) eta aurreko asteko etxeko 4 eta Oekoa berretsi eban 2-5 irabazita. Arratiatik zale ugari joan ziran Pradejoneira eta BEGITU be bertan izan zan zaleakaz batera. **14. orrialdea**



Areatza Musik and Beer ate-joka dago

Rock & roll, soul eta blues musikea euskal garagardao artisauagaz bustiko dauan jaialdia maiatzeko atzen astegoienean ospatuko da. Bezperan Garenan egingo dan maridajeen berotu ostean, hilaren 29 eta 30ean izango da jaialdia Areatzan. Hamaika banda eta Basque Beer alkatereko garagardaoak lagunduteko, proposamen gastronomikoak, artisau azokea eta kale-arteak be egongo dira uribilduan. **11., 12. eta 13. orrialdeak**

Sari Schorr.



143 salaketa eta 2,8 milioitik gorako zorra

Gabonetako Loteriarena luzerako izango dan gatazkea da, epaitegietan amaituko dana. Momentuz 143 dira kalte-tuak, gitxienez 286 kobrau ez diran partizipazioak eta 2,8 milioi eurotik gorakoa Arratiko Zekorrak zorra. Arratiko Zekorrak taldeko presidentea atxilotu eban Ertzaintzak maiatzaren 15ean; hurrengo egunean epailearen aurrean deklaratu ostean behin-behinean aske itxi eban fidantza barik. **9. orrialdea**



DIMA

Dimako erdigunea hartuko dabe jentilek

Hilaren 30ean, Dimako baso eta kobetan bizi diran jentil eta bestelango izaki mitologikoak herrira bajatuko dira, gauzez, euren historia antzestu eta sorpresaren bat be emoteko. Plazan hasi eta amaituko da ibilaldi mitologikoa, 22:00etatik aurrera. **5. orrialdea**



Literatura txokoa

PEDAGOGISMOAREN GEZURTAPEN BAT

Teresa Maldonado filosofoaren bigarren liburua dogu *Pedagogismoaren gezurtapen bat*. Lehenengoaz, *Hablemos claro. Retórica y uso del lenguaje en el feminismo* liburuagaz Euskadiko Literatura Saria jaso eban 2021ean gaztelaniazko saiakera arloan.

Aurrekoan, liburuaren ardatz feminismoaren inguruko kezka bat hartu baeban be; bere irakaskuntzako esperientzian oinarrituta, filosofia irakaslea da-ta, Hezkuntzak hartutako norabidearen gainean hausnartuten dau bigarren liburu honetan.

Gaiak eremu askoz zabalagoa izan arren, *Pedagogismoaren gezurtapen bat* liburuak lotura berezia dauka Arratia eta, zehatzago,

Arteagaz. Izan be, 285. orrialdean Maldonadok azalduten dauanaren arabera, "liburu honen haziak Artean, Bizkaian, erein ziran Arantzeta Kerexeta lankide eta lagunak 2024ko apirlean antolatutako solasaldian. Saioa Arteako Herriko Bentan gauzatu zan, Carlos Fernandez de Liria eta biok hizlari. Beraldian garatu neba geroago liburu honen lehen adreilua izango zana". Ez hori bakarrik, handik HezkuntzArtea alkateta sortu zan, lehenengo urtean Artean batu zana eta gehiegikeria pedagogis-tearen kontra, irakasten dauan hezkuntza berreskuratuteko sortu zana.

Eskola autoritarioaren kontra, hau da, ikasleak zigortzen eban zana eta zentzu bako zerrendak

buruz ikasi arazoten ebanaren kontra jaio ziran pedagogia barriak. Baina eskola mota hori aspaldi desagertu zan, eta atzen 20 urteetan, pedagogismoak -pedagogiaren gehiegikeria- etenbako barrikuntza pedagogikoa, akritikoa eta desegokia, bultzatu dauala, kapitalismo neoliberalaren mesedetan argudiatzen dau Maldonadok bere liburuan. "Ikasgeletan sartzean dabizan ikusmolde, praktika eta metodologia asko aspalditik aberastasuna gitxi batzuen eskuetan konzentretako ahaleginetan dabizan eragile ekonomikoek eskatu izan dabizan berberak dira".

Hori dala-ta, saiakera ausart eta mamitsu honetan, egileak gaurko moda pedagogikoen zuztar anti-

ilustrauak aztertzen ditu; baita 1968ko maiatzak izandako eragina be. Honen eraginez, ezkerren zati handi batek, neoliberalismoari eta kapitalismoari interesetan jakiezan ikuspegiak onartu dituala erakusten dau Maldonadok.

Liburuak gai asko landuten ditu: askatasuna, biraketa emozionala, helduzentrismoa, publikoa eta pribadua, bardintasuna eta diferentzia, ikasleen tratamendu personalizaua... beste askoren artean.

Danak, zorrotz eta zehatz tratetan ditu, polemikari bildur barik bere eretxiak argudiatuz. Eta hau danau, umorezko zertzeladak be badituan eta irakurleak hur sentiduten dauan estiloan, irakurlea harrapatuten dauana eta Hezkuntza eta gure gaurko gizartearen gainean sakon pentsetara eroaten dauana.



Teresa Maldonado Barahona

Pedagogismoaren gezurtapen bat

Elkar argitaletxea, 2025

Bea Azpiri

292 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Maiatzaren 18tik 24ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Melero (16-22). Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 25etik 31ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa (23-29). Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 1etik 7ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atubxa Sailburua 1

Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga (30-5). Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Cometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Tel.: 94 449 05 87

Medikuak

Arantzazu, Artea, Areatza, Dima,

Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63

Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85

Ubide: 945 45 50 17

Zeberio: 94 500 67 95

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17

mankomunitatea@arratia.eus

Gorbeialde Landa

Garapenerako Elkarte

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51

kulturetxea@igorre.net

Lemoako Kotxepin Kultur Etxea

kotxepin@lemoa.eus

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa 688 854 543

info@errota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik

22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik

21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara

orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era

orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro.

Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-

Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara

orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-

Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubidetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik

20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik

20:45era bi ordurik behin.

*08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran

zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara

orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta

08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan

ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00,

16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan:

07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30,

16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan:

07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

A3712 linea. Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: 06:45ean urteten dau Bilbotik.

Zapatuetan: 08:45ean urteten dau. Domeka eta

jaiegunetan: 10:30ean urteten dau.

A3712 linea. Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: 15:15ean urteten dau Gasteizetik.

Zapatuetan: 16:30ean urteten dau. Domeka eta

jaiegunetan: 16:30ean urteten dau.

Eskualdeko garraioa. Erreserbak

945 18 20 60

6A linea. Otxandio-Legutio

Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean,

09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean

eta 20:25ean. Astegoen eta jaiegunetan:

08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.

6A linea. Legutio-Otxandio

Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean,

14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta

21:15ean. Astegoen eta jaiegunetan: 10:35ean,

13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.

Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkarte. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea.

Tel.: 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*.

Zuzendaria eta kudeatzailea: Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:**

inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923.

E-posta: *asierabrisketa@begitu.eus*. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Ager

Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112.

E-posta: *begitu@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:**

Araitx Zapiko (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Xabier Gorostiaga (Arantzazu, Areatza

eta Artea) Aimar Arandia (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz

(Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa

inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus,

Mastodon: @begitu, **X:** @BegituEus **YouTube:** @BegituAldizkaria

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-

eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu

daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren*

bitartez (CC-by-sa). Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean

komunikau, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatz eta egiletza

aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Babesleak:



ZEURE BERBEA

Ez deust loa kenduko

Gabonetan Villamanineko loteriarena pasau zanean askok jai batzorde bateko kideak zorpetzea alperrikakoa eta gehiegizkoa zala pentsetan genduan. Izan be, dirua zerutik jausten danean eta hori lortzeako lanik egin behar izan ez dogunean, pozak eta penak zatitutea da alkarbizitza atseginerako aukerarik onena.

Ulertuten dot erantzukizuna jagokonarena dala, eta danok ulertu beharko dogula zer gertatu zan. Baina nik ez dot inor hondamenean edo aukera okerragoetan gelditzerik gura, inbertidu doguzan 5 euroren truke jasotako sari batengaitik.

Kezkatu egiten nau, eta min handia emoten deust, daborduko dirua kobrau dogun personen artean hainbeste kostetea kobrau ez dabenakaz enpatizetea. Zure bizilagunak dira, zure semearen laguna, zure lagunaren iloba, zure

lankidearen amama... Benetan ez al gara gai ahalegina egiteko eta banatuteko?

Badakit batzuk gastau dozuela... eta egongo da bueltau ezin dauanik, baina uste dot gehienok egin daikegula, gura badogu edo saiatzen bagara.

Niri ez deust loa kenduko estatu mailako zozketa baten zerutik jausi jatan diru hau kudeatzeak, ez. Nire esku dagoanagaz lasai bizi gura dot.

Danok lasai lo egin ahal izatea gustauko litxakit.

Eta hau guztiau bezainbeste, esaten dogunak eta egiten dogunak kezkatzen nau. Inplikautako personek kezkatzen naue, lehen personan eta familiartekook; zurrumurruek, epaiketek, irainek, haserreak...

Kobrau ez dabenei, kobrau dogunoi, eta modu batera edo bestera inplikautako guztiei, prozesurik eta akordiorik onena opa deusuet.

ILIA MITXELENA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasan Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkeo, BEATUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

ALKARREGAZ



Igorreko Eskolako Guraso Elkarte

Guraso Elkarte eskolako ikasleen familiek osotzen dogun irabazi asmorik bako taldea gara. Gure jarduna lan boluntarioan oinarritzen da, gure umeentzako kalidadezko hezkuntza, ongizate eta garapen prozesu integrala lortzeako asmoz. Eskoleagaz lankidetzan, hezkuntza proiektu erakargarri eta hezigarri bat osotzen saiatzen gara, ikasle guztiek bere espazioa eta heziketa prozesua izan dagien, euskera, eskolea eta herria oinarri hartuta.

Gure lanak hainbat esparru barne-hartzean ditu. Eskola orduen barruan, ikasleentzat dramatizazio klaseak eta bertsolaritzea bultzatzen doguz. Jangela eredu hezitzailea sustatzeko lanean gabiz sukaldari, begirale eta zuzendaritzeagaz batera. Horrezaz gainera, eskolaz kanpoko ekintzak antolatu eta kultura asteko ikuskizunak, guraso eskolea, mendi urtekerak eta ziklo amaierako bidaiei laguntzea eskaintzen deutsegu. Eskola Bideak proiektua bultzatzen dogu herriko beste eragile batzukaz batera.

Maratoi Txikia, Alkarregaz proiektua eta Arratiako Guraso Elkarte topaketen sustatzaile gara beste eragile batzuekz batera.

ERETXIA

Okupau daigun lapurtutako dana...

Okupazioaren mamua Euskal Herria zeharkatuten dabil. Batzuk zarataka dinoe: "Okupazioa krimen bat da!". Beste batzuk erantzuten dabe: "Jaubetza lapurreta bat da!". Baina nork deslegitimetan dau okupazioa eta nork legitimetan dau jaubetza? Herriagaz loturarik ez daukan banku batek, ze momentutan dauka hamabi urteko bitzta kolektiboak baino pisu handiagoa?

Eztabaida juridikoaz harago, komeni da gure buruari galde-tutea, ze eginkizun betetan dab bez gaztetxeek gure herrietan? Izan be, gaztetxeak ez dira inoz eraikin okupau bat bakarrik izan; espazioen erabilereari buruzko eztabaida material eta sinbolikoak dira. Orduan zeren arabera antolatu behar dau herri batek bere bizitza? Jaubetza pribaduen arabera? Edo behar kolektiboan arabera?

Igorren, hain zuzen be, kontraesan hori irudikatuten dau Kiñuk. Gaztetxeak hamabi urte daroaz topagune, sorkuntzea, antolaketea eta kultura herrikoia sustatuten dauan espazioa izaten. Hori argi geratu zan oin dala aste pare bat XII. urteurrenean; barriro be programazio anitz bat herriari eskainiaz: poesia errezitaldia, kontzertuak, bakarriketea, umeentzako ekintzak, herri kirolak eta sortzailen azokeagaz bete zan aprila. Agenda zehaztetik harago, mezua argia izan zan: Kiñu bizirik dago herriaren benetako behar bateri erantzuten deusalako.

Halanda be, Sabadell Bankuak, espazioaren egungo legezko jaubeak, bultzatutako prozesu judizialak, sei urte daroaz gaztetxea mehatxatuten. Joan dan urtailaren 27an, proiektuaren etorkizuna markau ahal eban epaiketean aurreikusita egoan.



KIÑU GAZTETXEA

Baina negoziazio-bide barriak baloreteak prozedura judiziala gelditutea eta konponbideak aztertuteko tarte bat zabaldu-tea ahalbidetu eban, 60 egune-ko tarte emonda.

Epaileak ezarritako epearen ostean, albisterik garrantzitsuena horixe da, hain zuzen be: prozesu judiziala geldirik mantendutea ebatzi da, negoziazioek aurrera jarraitzen daben bitartean. Kiñuren jarraipena bermatzeko puntu komunak lortzeako benetako aukerearen aurrean.

Egoereak kontraesan nabarmena islatuten dau. Banku-

erakunde batek juridikoki gune bat erreklamau daiketan bitartean, hamarkada bat baino gehiagor gunea herri zein gizarte-azpiegitura bihurtu dauan komunitate batek, etenbarik justifikau behar dauala espazio horren existentzia. Gatazkea ez da bakarrik tokikoa; logika zabalago bat adierazoten dau, zeinetan espazioen jaubetxeak poderetsuen esku dagozan bitartean, zapalduen amets kolektiboak desjaubetzearen ondorioak jasaten jarraituko dabezan.

Eztabaidea ez da jaubetza lapurretea dan edo ez, baizik eta jaubetza be askatasuna dala. Hori argitze aldera, problematika ez da herritarrok jaubetza personalak eukitea. Arazoa da, poderetsuen gixiengo bat ondasun gehienon jaube danean; honek erabili barik, landu barik, hau da, benetan euki barik; egoera horreetan okupazioa horreek burukatuteko tresna balio-tsuenen bihurtuten dala.

Testuinguru horretan, ondino garrantzia handiagoa hartzean dau, herriak berak, txupinazioa botateko Kiñu aukeratu izanak. Ez da jaietako anekdota bat, errekonozimendu politiko eta soziala baino. Hamabi urteko lan kolektiboa, autogestinaua eta eraikuntza komunitarioa legitimetea dakar.

Kiñuren alde egitea ez da lau horma defendidutea bakarrik, merkaduaren logikearen menpe ez dagozan espazioei eusteko aukerea burukatutea da. Alkartzeko, antolatzeko eta komunitate-bitzta ekoizteko lekuengan sinistutea da. Izan be, desagertzen dan gaztetxe bakotzak ate zarratu bat baino zeozer gehiago ixten dau atzean: herri mantsoago, indibidualizauago eta itsuago bat ixten dau.

Argi dinogu, poderedunen jaubetza pribaduen kontra eta espazio seguru, aske eta kolektiboengan sinisten badozu, burukatu Kiñu eta burukatu gaztetxeak!



LUMATUTEN



MIKEL URRIZ

Gerreari gerrea!!

Gazako sarraskia geldiarazoteko gaitasun ezaz ohararazota demokraziatzat jotzen ohi dan sistemearen balioa zalantzan ipinteko galderea bota neban, txoko honetan idatzi neban atzen aldian. Ordutik hona, Gazakoa gelditu barik, Venezuelan eskua zuzenean sartu eta Iran eta Libanoren aurka erasoari ekin deutsee munduko jendarme nagusiek. Lotsabako dabiz gerran murgilduta. Lotsabakoak eurak, lotsa gorrian gu, jakin barik zelan aurre egin egoera honeri.

Harritzekoa bada be, munduan, gerrearen aurkako erreferente bihurtu da Espainiako gobernuburua, Iranen aurkako eraso hasi eta berehala agertu zan-ta gerreari ezetza esaten. Arranopola! Erreferentzia izan zentzuzkoa dan jarra bakarra! Halanda be, estaduan eta Europa osoan kritika zorrotzak jasan ebazan berehalako erantzun horregaitik. Ekonomia eta Erregimena atxakiaz, lotsa gaiztoz ikusi doguz hainbat agintari eta sasi-

agintari Iranen aurkako eraso justifiketan, gerra kirurgikoaren iruzurra elikatzen eta erasoari laguntza logistikoa emoten.

Akaso inozo hutsa naz, baina ez dot uste zientzialari, ekonomia, edota zientzia politikoetan aditu izan behar garanik gerrearen aurka egoteko. Galduta gabiz aditu eta komunikabideek egunero luzatzen deuskuezan mezuez, agian urtenbiderik eskainiko deuskuenen zain. Oin Ormuz, hurrengoan dronak, gero Libano, Bake Konferentzia gerroxeago, bake proposamen hau zein bestea, eta mehatxua barriro be. Informazio eta desinformazioaren sareetan nabigatzen goaz eta bitartean gerrea aurrera eta gu lotsearen lotsez gure ezintasunean murgilduta.

Adituek dinoenez mundua oreka barri baten bila dabil. Potentzia handien arteko gatazkearen une erabakigarria ei da oingoa. Atzen baten, bakearen erretroriketa saltzean deuskuen poderearen jauntxoek Clausewitz dizipulu sutsuak dira eta gerrea, politikearen jarraipena baino ez da eurentzako. AEB, Txina, Errusia, EB, bakotzak euren morroi eta peoiak mobiduten dabiz xake taulan. Holan da, onartu beharra daukagu. Baina txikiak, eta mundu zabalean txiki-txikiak, ñimiñoak garenok zergaitik ulertu behar dogu handiki horreen logikea?

Errebeldia eta emantzipazio grina hutsagaitik bada be, xake taula baten inoren peoia ez garala aldarrikatu beharko geunke. Gerreari gerrea beraz!

ZERTZEAN



AIALA IRURTIA

Gaia jarrita: "Kiñu eta Laminetxeren urteurrenak"

1

Sistema honen etekin nahia ta sistema honen usteen aurka bagabiz antolatuten autogestinoa puzten baia badabiz gaztetxeak be aurin lekue hartuten eta ze garrantzi duten fazile da hamen ikusten sarri saiatu ohi diren arren bidea oztopatuten jada lau eta hamabi dire Arratie loratuten.

2

Gaztetxeak jagon ta zabaltzea beharrezkoa dogunez herrien zehar eskeini dire ekintzak gau ta egunez garai batean sortu gindune tresna ta espazio xumez ardura eta jardunez betea dogu lagunez amestian dogu ospatu diren moduko hamaika unez borrokan gabiz ta ilusinoz gozamen ta maitasunez.

3

Begire ipini ezker mundu honen formatu barrire gazteontzako dauen eskaintza gitxitu eta urrie lekue emonez gorrotoari kriminalizazioari be ez lotu horren harire batu gure aldarrire okupazio eta sarea gure babes, gure bide lehen espazio hutsek zirenak oin ametsez bete dire.

4

Gaztetxe honin urteurrenak zertatoko ta zergaitik ba ez zalako herrien zehar aktibo egongo gazterik ez formakuntza aisialdirik tailerrik, hausnarketarik ez tire lau horma soilik guztion aterpe baizik aurrerantzean ezta egongo egingo ez dogun lanik milaka urtez segidu deien gure bailarak bizirik.

BEGI TXINDORRA

100 urte bete ditu Lemoako udaletxeak. XIX. mendean baina, herria sano desbardina zan, herri nekazaria. Udal agintariak Elizondoko tabernan batzean ziran, ziur bertan batzarrak gehiago luzatuko zirala. XIX. mende akaberan Casto de Zavala arkitektoak -lehenengo Gorbeiaiko kurutzearen egileak- eskola eta udaletxe izango zan eraikina diseinatu eban. Baina marraskia, kaxa batean gelditu zan ahaztuta 50 urtez. XX. mendeko lehen urteetan baina, lantegi barri eta tranbiagaz Lemoa hazi eta benetako udaletxe baten beharrezana ikusi zan.

1924an, Maria Camiña heldu zan herrira, Erdi Aroko zaldun eta gazteluen frikia zan arkitektoa. Holan jaio zan 1926an, dorretxe baten itxurea eukan udaletxea, goiko erpinetan, gazteluetan lez, garitoiak be eukazala. Behean garirako biltegia eta animalientzako ikulua, erdian alkatearen bulegoa, goian maisu-maistrentzako etxebizitzak eta atzean, eskolea eukazan. Gaur egun -abere, ume eta maistra barik- udaletxea bardin-bardina da diseinuz, izan be, 1980an BVE eta Triple A talde armatu faxistek eraikina lehertu eben. Lehengo planoakaz barriztau zan udaletxea, lis-lorea eta pikea dituan armarrria gehituta.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredoriak@gmail.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Ikasgaitza Zerbaita 100
R.P.S. 21/06

DIMA

Aurten be jentilak Dimara bajatuko dira

Maiatzaren 30ean, urteroko *Jentilak Diman* ikuskizun mitologikoa eta historikoa egingo dabe gaueko 22:00etatik aurrera Dima guztian zehar.



Ager Barragan

Maiatzaren 30ean dimoztarrek, beste urte batez, bizitza emongo deutsee izaki mitologikoei Dimatik zehar. Izan be, Txumulueta Kultur Elkarreak, Dimako Udalaren laguntzeagaz eta herriko koruaren, bertsolarien eta herriko musika-tresna joleen eta kanpoko aktoreen ekarpenakaz, *Jentilak Diman* 2026 antolatu dau.

Igaz ekitaldia Baltzolan hasi zan, baina aurten herrian bertan egingo dabez ibilbidea eta ikuskizuna gaueko 22:00etatik aurrera. Plazan hasi eta amaituko dan aurtengo *Jentilak Diman*-eko ibilbideak hainbat

sorpresa eukiko ditu eta Olenzero, Akerbeltz, lamiak, jentilak, Tartalo eta euskal mitolo-

giako beste hainbat personai ezagun egongo dira herritarraz hartu-emonetan.

Herritik personai mitologikoak ezetu eta historia entzun ostean, plazan egin eta silex edo suharriaren bilaketearen istorioa kontentan dauan bost aktoko antzerkia izango dan ekitaldi nagusia ikusteko aukerea egongo da. Horreetatik hiru atal, jentilek koba barruko bizipenak kontetan dabezanak, antzetzuek izango dira eta beste biak, koba kanpoko bizipenenak, eszenatokian egongo dan pantaila erraldoi baten proiektutakoak izango dira.

Txumulueta Kultur Elkarreak jenteari ekitaldira etorri eta bertan parte hartzeako deia egin gura deutso, BEGITUN Manu Aurrekoetxeak adierazo moduan "sorpresa handiak" egongo dira-ta.



IGORRE

Torrea eta Olabarriko jaiak ospatuko dira maiatzaren 22 eta 23an

Asier Abrisketa

Auzoak Astindu alkarreak lehenengo antolatu ditu Tobarriko jaiak, hau da, Torrearen eta Olabarriko auzo igoztarretako jai batearatuak. Lehenengo egunean, barikua, eskolatik antolatutako Azoka Solidarioa, 16:30ean, eta zunbatoia egingo dira, 18:30etik aurrera, eskolako patioan. Hurrengo egunean barriz, zapatua, egun osoko jaiak egingo da.

Zapatua 12:30eko txupinazo eta pregoiagaz hasiko da, herriko txistulari eta buruhan-

diakaz girotuta; eta jarraian, poteo musikatua hasiko da Olabarritik. Helduak tabernaz taberna ibili bitartean, umeek arpegiak margoztuteko txokoa izango dabe. Bazkalostean barriz, 15:45ean briska, mus eta igel jokalariek batuko dira, txapelketetan izena emon eta jarraian jokaturen hasteko. Umeentzako ekintzak be egongo dira 16:30etik aurrera, barreraterapia jolasa eta globoflexia tailerra. Gero, 19:00etan AMEk antolatutako parrilladea egongo da danentzako, trikitalariek

girotuta. 21:00etan osterara, gaueko jaiak hasiko da umeentzako diskofesta eta geroko DJ Bassen musikeagaz.



IGORRE

Latinoamerika, Antilla eta Karibeko Zinemaldiko film bi proiektuak dira Lasarte Aretoan

Hilaren 27an *Acuerpadas, hasta que se haga justicia* eta 29an *El caso Freytter* egongo dira ikusgai, protagonisten solasaldiakaz.



Acuerpadas, hasta que se haga justicia filmaren grabazioa Artean.

Asier Abrisketa

Emigrad@s Sin Fronteras alkarreak Euskal Herrian biran ibiliko dan Latinoamerika, Antilla eta Karibeko Zinemaldia antolatu dau. Helburua, zinemaren bitartez giza eskubideak, bakea eta bizikidetzaren sustatu eta defendidutea da eta horretarako, gai sozial desbardinak lantzean dabezanak dokumentalak proiektuak dira: andrak, LGTBQ+ komunitatea, nekazariak, indigenak... Hau Jaurlaritzaren Giza Eskubideen, Memoriaren eta Bizikidetzaren Sailagaz, Bizkaiko zein Gipuzkoako diputazioak eta Igorre, Mungia, Arrigorriaga, Amurrio eta Andoango udalagaz antolatu da. Holan, herri bakoitzean film bina proiektuak dira, atzenak Igozren maiatzaren 27an eta 29an, biak 18:00etan Lasarte Aretoan.

Lehenengo filma *Acuerpadas, hasta que se haga justicia* da eta bere protagonistetako batek, Dalilda Arguetak, urteak daroaz Arratian errefujiauta, berak egingo dau solasaldia. Dokumentalean, Africa Baeta,

Gessame Forner eta Lorena Fernandezek Hondurasera bidaiatuko dabe, erresilientzia eta duintasun istorioak topetan. Estrukturalaren eraginpean dagoan herrialde baten, zailtasun guztien gainetik euren lurra, gorputzak eta ahotsak defendiduten dabezanak andrakaz egingo dabe berba. Bueltan, Arguetagaz batuko dira Arteko Basoa Defendatzaileen Etxean, kontakizun intimo eta indartsu baten mundu biak buztartuta.

Hilaren 29an barriz, *El caso Freytter* dokumentala egongo da ikusgai. Dokumentalak Jorge Adolfo Freytter irakasle, abogadu eta sindikalista kolonbiarraren erailketea dauka ardatz moduan. Protagonistea honen semea da, Jorge Freytter, eta dokumentalean agertuten da zelan 17 urtez erbesteratuta egon ostean, Kolonbiara bueltetan dan bahitu eta hil eben aitaren kasua ikertutera. Bere hilketearen nondik norakoak eta errazoiak misterio bat dira oindino be.

LEMOA

Sariak banatuko dira denda eta tabernetan euskeraz eskatuteagaitik

21 establezimientuk hartzean dabe parte Lemoako Udalak bultzatutako "Lemoan, eskatu euskaraz eta saria irabazil!" kanpainan.

Asier Abrisketa

Lemoako Udalaren ekimenez, herriko denda eta taberna gehienetan euskeraz agurtu edo eskatuteagaitik sariak banatuko dira maiatzaren 31ra arte. Holan, euskaldunek komertzio eta tabernetan euskerea erabiltea bultzatu gura dabe, eta euskaldunak ez diranak be, euskeraz egitera saiaturera animau gura ditue.

Beraz, izena emon daben 21 establezimientuetako baten euskeraz agurtu edo eskatuten dabenek, hazka eta irabazi txartela jasoko dabe. Txarteletan 800 sari dagoz: beherapenak, armozuak, produktuak... Sari bako txartelak be badagoz, baina horreek gorde egin behar dira. Horreen artean zozketatuko dira-ta saririk potoloenak;



Urduñako bainuetxean persona birentzako egonaldia eta Garena jatetxean persona birentzako bazkaria.

Parte hartzean daben establezimientuak honeek dira: Amalur, Amorrortu jatetxea, Arraibigane, Argazki Ilune, Atxeta taberna, Farmazia, He-

rradura taberna, Iratxe Ruiz ule-apaindegia, Josier mertzeria, Jubiladuen taberna, Kodigoa taberna, Kresala taberna, Lemoa Doner Kebab, Lemoa fruitategia, Batzokia, Lemones jatetxea, Lur 2000, Luzea ule-apaindegia, Mailuki taberna, Tresnak eta Tximeleta.

ARTEA/IGORRE/ZEBERIO

Artea, Igorre eta Zeberio udaleku irekietarako izen-emotea zabalik

Asier Abrisketa

Artean, 2014 eta 2021 artekoen-tzako udaleku irekiak bagilaren 22tik garagarriaren 17ra egingo dira, astez aste emon daiteke izena. Goiz txokoa 08:00etatik aurrera egongo da zabalik baina ohiko ordutegia 10:00etatik 14:00etara izango da, urtekera egunetan 17:00etara arte luzatuko dalarik. Izena maiatzaren 22ra arte emon daiteke udalaxean, ohiko ordutegian. Aste bakotzeko prezioa umeko 30 eurokoa da eta bagilaren 8an batzar informatiboa egingo da, 19:00etan Kultur Etxean.

Igorren barriz, ikasturte honetan HH2-tik LH6-ra arteko mailetan egon diran umeentzako udaleku irekiak bagilaren 22tik garagarriaren 24ra egingo dira, astez aste emon daiteke izena. Ordutegia 10:00etatik 13:30era izango da, urtekera egunetan luzatu ahal dalarik. Izena maiatzaren 20ra arte emon daiteke Kultur Etxean, ohiko ordutegian. Aste bakotzeko prezioa umeko 30 eurokoa da, neba-arreba bi

izan ezkeroko bakotzak 25 euro eta hiritik aurrera, 20 euro. Ordainketea maiatzaren 21etik 27ra egin beharko da Kultur Etxean, txartelagaz edo eskudirutan.

Zeberion bagilaren 27tik 30era Gorlizen izango diran udalekue-tan izen-emotea zabalik dago maiatzaren 29ra arte <https://labur.eus/udalekuzeberio2026> helbidean edo udalaxean. 110 euroko prezioa dauka eta etxe batetik bat baino gehiago joan ezkeroko hurrengoek % 20ko beherapena daukie. Udalekuak 2009tik 2014ra jaiotakoentzat dira. 2015etik 2023ra arte jaiotakoek ostera bagilaren 22tik garagarriaren 10era arte izango dabe udalekue-taz disfrutatuko aukerea. Astez aste emon ahal da izena; 65 euro aste bat, 104 euro aste bi eta 156 hiru astetan parte hartu ezkeroko. Izena <https://labur.eus/udalekuzeberio2-2026> helbidean edo udalaxean emon behar da. Informazio batzarra 22an izango da 17:30ean 2015-2023 urte artekoentzat eta 18:15ean besteentzat, Plazako Ermita Zaharrean.

DIMA

EAJk Amaia Antxustegi konbidau dau Dimara

Asier Abrisketa

Arratian Topaketak ekimenaren bitartez, Arratiako EAJ-PNV lehen lerroko politikari jeltzaleak konbidatuten dabil atzenaldian, politikariek eskualdeko egoera hurretik ezetu eta bertoko militante zein boto-emoileek politikariak ezetu dagiezan. Oin arte Alberto Martinez Osasun sailburua, Carlos Alzaga Azpiegitura eta Lurralde Garapenerako foru diputadua, Aitor Esteban EBBeko presidentea, Iñigo Ansola BBBko presidentea, Adrian Lopez Jaurlaritzako Gazteria eta Emantzipazio zuzendaria eta Bingen Zupiria Segurtasun Saileko burua konbidau ditue.

Oingoan, Amaia Antxustegi Ziarda (Flandes, 1978) Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekin-tzako foru diputadua izango da konbidaua. Topaketea Dimako Batzokian egingo da maiatzaren 21ean, eguena, 19:00etatik aurrera.

AREATZA

Maiatzaren 20an hasiko da udabarriko Areatzako Bonodenda kanpaina

400 bonu salduko dira, 20 euroko prezioagaz baina 25 eurorainoko balioagaz.



Asier Abrisketa

Areatzako Udalak eta merkatariek, herritarrek herriko komertzioetan konsumidutea bultzatuteko helburuagaz barriro ipini dabe martxan Bonodenda kanpaina. Maiatzaren 20an hasi eta bagilaren 30era arte, edo zirkulazioan ipinitako 400 bonuak amaitu arte, hamasei urtetik gorako billaroztar bakotzak hiru bonu erosi ahalko ditu Gauzak dendan herriko komertzioetan erabilteko. Bonu bakotzak 20 euroko prezioa dauka baina 25

eurorainoko erosketak egin ahal izango dira horreekaz.

Areatzako bederatzi komertzioek hartuko dabe parte aurtengo lehenengo Bonodenda kanpainan. Aliprox, Andikoa harategia, Gauzak denda, Arantza Zamarloa botikea, Estankoa, Denda Barri, +Ke... Pan okindegia, Vade Retro ile-apaindegia eta Amaia ile-apaindegia dira komertzioak. Honeetan gastatu ahal izango dira bonuak. Honeen balioa pilatu daiteke baina ordaindu beharreko kopuruak bonuen balioa baino txikiagoa bada ez da dirurik bueltatuko.

ARRATIA


C1 mailarako ikastaro trinkoa emongo da bagilean Kubulun

Asier Abrisketa

Arratiako AEKren Igorreko Kubulu euskaltegian euskerazko C1 mailarako prestatuteko ikastaro intentsiboa antolatu dau bagilerako. 100 orduko ikastaroa izango da, bagilaren 1etik 26ra. Klaseak Kubulun emongo dira asteleheneetik barikura, 08:30etik 14:00etara. Izen-emotea maiatz osoan zehar egongo da zabalik, Kubulu euskaltegian bertan. Informazio gehiago gura izan ezkeroko, 607 632 916 eta 688 763 309 telefonoetan eskatu daiteke.

Kubulu HABEK homologau-

tako euskaltegia da eta C1 mailarako ikastaro hau, zein Kubulun eskaintzen diran danak, azterketa ofizialak prestatuteko egokiak dira.



IGORRE

III. Gazta eta Esneki Azokea egingo da hilaren 31n Igorren

Oin hiru urte hasi zan Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea inguruko gaztai eta esnekiak ardatz hartuta Igorren azokea antolatuten eta atzen urte bietako arrakastearen ostean, geldituteko etorri dan merkadua dogu.



Lehen urteko gaztai eta esnekien azokako irudia.

Asier Abrisketa

Maiatzaren 31n egingo da aurtan Gazta eta Esneki Azokea, 10:30etik 15:00etara Garbeko aparkalekuan.

Azokan gaztaiak, jogurtak eta gatzatuak topau ahalko dira,

besteak beste. Baina protagonismo berezia izango dabe Idiazabal JD gaztaia egiten daben Areatzako Txonde, Otxandioko Padilla eta Oletako Atxetak. Horreezaz gainera sortu barri dan Euskadiko Esneki Ekoizleen Elkartean sartu diran Igorreko

Askibil, Orozkoko Lusuri eta Otxandioko Otxauntzek be eukiko dabe postua. Gorbeia ingurutik urrunduta barriz, Berriuruko Txikiñena eta Errexileko Urraki be egongo dira. Beste alde batetik txakolina, ogia, euskal pastela eta barazkiak saltzean dabezan postuek be izango dabe euren lekua. Goizean zehar ardi moztailen erakustaldia be egongo da.

Izozki artisauen dastaketea

Ohikoa danez, dastaketea be egingo da baina oingoan gaztaiena ez, izozki artisauena izango da, Maruri-Jatabeko Gelati-Gelatiren produktuakaz. 12:00etan egingo da dastaketa bakarra eta hogeitazko lekua bakarrik egongo danez, izen-emotea alde arretetik egitea komeni da, <https://labur.eus/gaztai> helbidean. Bil dutako Caritaseri emongo jako.

IGORRE

Anton Zuluaga izango da EAJren Igorreko alkategaia

“Ohore handia da Olatz Urkizaren lekukoa hartu eta Igorrentzako aro barri baten hasikerea ekarri dauan programeari jarraipena emotea”.

Asier Abrisketa

2027ko maiatzean egingo diran Udal Hauteskundeei begira, Igorreko Uri Buru Batzarrak Anton Zuluaga Etxebarria aukeratu dau EAJren alkategaia izateko. Zuluaga Kirol zinegotzia da gaur egun, Olatz Urkizaren taldean eta honen lekukoa hartuko dau, programeari jarraipena emoteko helburuagaz eta “gertutasunetik, arduratik eta alkarriketatik” lan egiteko konpromisoagaz.

EAJk zabal dutako oharrean adierazoten danez, Zuluagak Igorreraren garapena sustatuteko, gazteen bizi-proiektuak garatuteko aukerak bermatuteko eta igorreztarren bizi-kalidatea hobetuten jarraituteko borondatea agertu dau.

Zuluagak 49 urte ditu, ezkon-

duta dago eta seme-alaba bi ditu, eta Batz-eko bazkide langilea da, mekanizazio-teknikaria. Zeanuriztarra bada be, hogeitazko Igorren biziten eta beti izan dau lotura

estua alderdi jeltzaleagaz. 18 urteagaz hasi zan EGI eta Zea-nurin, Hirigintza zinegotzia izan zan 2003 eta 2011 artean, bai eta udalerriko Udal Erakundeko buru 2018tik 2022ra.



LEMOA

Memoria eta Kultura egitarauaren atzen jarduera biak

Hilaren 21ean Hezur berriak bertso-saio literarioa eta 22an Antxo ta Pantxa pailazoen ikuskizuna egingo dira.

Asier Abrisketa

Atzen urteetan Memoria eta Kultur Astea izan dana maiatz osoan luzatu da aurtan eta lehengo hamabostaldiko jarduerak pasauta, atzen biak egingo dira oin. Lemoako Udalak antolatutako ekimenak helburu biko-tza dauka; batetik jarduera kulturalakaz gozatutea eta bestetik, Memoria Historikoaren gaineko hausnarketea bultzatutea. Ha-ta guzti be, aurtan ez da Memoria Historikoagaz lotutako jarduerarik egin.

Maiatzaren 21ean, eguna, Ane Labakak haurdunaldian zehar idatzitako *Hezur berriak*

poema liburuan oinarritutako bertso-saio literarioa egingo da, 19:00etan Kotxepinen. Bertan, Labakaren poema liburuko testu hautatuen irakurketea, Ines Osinagaren musikeagaz buztartu eta Onintza Enbeita, Jone Uri eta Erika Lagomaren bat-bateko bertsoaldiakaz tartekatuko da.

Hurrengo egunean barriz, hilak 22, 18:00etan Antxo ta Pantxa pailazoen *Lurrazpitik* atzen ikuskizunagaz gozatuteko aukerea izango dabe txikerrenek. Pailazoak indusketa arkeologiko batera joango dira eta bertan topatutakoakaz, jolasak, jantzak eta magia baliatuta, helduen gerran gainean egingo dabe berba.



ARRATIA

Hilaren 21ean ospatuko dau EH Bilduk Arratian Bat Egin eguna

Igorren egingo da topaketea, Arkaitz Rodriguez eta Nikole Ziarrustaren berbaldiaren bueltan.

Asier Abrisketa

Arratiako EH Bilduren komunitatea batu eta saretuteko helburuagaz, eskualdeko alderdiki-deek Arratian Bat Egin antolatu dabe maiatzaren 22rako. Ekitaldi zentrala EH Bilduko parlamentaria dan eta ointsu arte Sortuko idazkari nagusia izan dan Arkaitz Rodriguezek eta Nikole Ziarrusta igorreztar militanteak eskainiko daben *Arratiatik Euskal Herrira*,

antifaxismoa eraiki! berbaldia izango da.

Kultur Etxean 19:00etan hasiko da Euskal Herriaren egoeraz hausnartu eta Arratiatik “datorrenari zelan aurre egin” eztabaidatuteko saioa. Behin berbaldia amaituta, hurreratutakoak Axular Herriko Tabernara mobiduko dira, bertan mokautxoa egin eta herrian zehar poteoan urten aurretik.

DIMA

Autokonsumorako lehen proiektu fotovoltaiko partekatua badago martxan

Urte biren ostean, frutuak emon dauz Dimener Energia Barriztagarrien Komunitatearen lanak.



Plaka fotovoltaikoak Dimako eskolako teilatuan.

Asier Abrisketa

2024an osotu zan Dimako Dimener Energia Barriztagarrien Komunitatea, orduan azaldu eben moduan, "klima aldaketea geldiarazoteko, Dimatik gure aletxo ipinteko" helburuagaz. "Komunitate berarentzako energia barriztagarrietan oinarritutako konponbideak"

topetan hasi ziran eta urte biko lanaren ostean, amaituta dago 35 etxebizitza eta 10 udal konsumo-puntutara argindarra eroango dauan instalazioa.

Instalazio fotovoltaikoa eskolako eta frontoiko teilatuetan ipini da, 76,7 kWp potentziagaz. Bertan sortutako argindarrak eskolea eta frontoiaz gainera, haurtzaindegia, jubiladuen loka-

la, ludotekea, osasun zentroa, KZ gunea, liburutegia, Abaroa eta Elexalde aretoak elikatuko ditu. Beste alde batetik, bost kilometrotako perimetroan dagozan 35 etxebizitzetan be konsumiduko da elektrizidade hori.

Instalazioaren kostua

Proiektua Goiener Kooperatibeak diseinatu eta koordinatu dau, eta dirulaguntzek garrantzia handia izan dabe. Izan be, proiektua Bizkaiko Foru Aldundira aurkeztu zan eta finantziazioaren % 95a (80.000 euro) bere gain hartu dau diputazioak. Gainontzekoa, Dimako Udalak ordainduko dau. Atxikitu diran etxebizitzak barriz, barne-funtzionamenturako araudi bat diseinetan dabiz; aseguruia eta mantenu lanak aurreikusten dauzana, bai eta 25-30 urte barru instalazioa aldatutako aurre-amortizazioa.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Bizkaibus hobetuteko proposamenak egin ditu mankomunitateak



Asier Abrisketa

Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaibusen zerbitzuak lizitazinora ateratu eta kontratuei alegazioak egin ahal jakiez. Holan, Arratiako Udalen Mankomunitateak hainbat alegazio sartuko deusaz foru aldundiaren aurreproiektuari. EAJ-PNVk zein EH Bilduk adostu dabez mankomunitatearen izenean egingo diran zazpi alegazioak, tartean, Zornotzara eta Leioako EHUra joango diran lineak sortzea eta gainontzeko zerbitzuak hobetutea.

Arratiako Udalen Mankomunitateak bakarrik ez, edozein norbanako zein erakundek egin ahal dauz alegazioak maiatzaren

22ra arte. Holan, Arratiako EAJk mankomunitatean adostutako alegazioak bere kontura aurkeztu ditu. Arratiako EH Bilduk barriz, alegazioak instituzino moduan aurkeztutea lehenetsi dau eta holan egin da Areatzako Udalaren izenean, barbarako.

Bizkaibus zerbitzua hobetuteko eskaera zehatzak

Mankomunitateak aurkeztuko dauzan alegazioen artean, lehenengoa A3917 linearen gainekoa da. Hau Ubideraino ailegetea galdegingo da eta Galdakaotik pasetean, erdigunetik egitea. Diputazioaren aurreproiektuan, A3927 linea (Bilbora autopistatik doana) Zornotzara desbideretea

proposatuten da baina mankomunitateak gaurko trazadura mantendutea eskatuko dau, eta gainera Usansoloko Ospitalean geldialdia gehitutea. Zornotzarako beste linea bat sortzea eskatuko da.

Ikasleentzako, Zeanuritik abiatuta Leioako EHUren kanpusera joango dan linea barria sortzea be eskatuko dau mankomunitateak. Aldundiaren planak A3928 (Artea-Ugao) linea Igorreraino be ailegetea jasoten dau baina mankomunitatearen eskaerea, hau Lemoaraino heltzea izango da, lehenengo Areatza eta Zeanuritik be pasauta.

A3925 (Bilbo-Dima-Otxandio-Ubide) linearen gainean barriz, Otxandion hasi eta amaitutea eta ordutegiak Gasteizeko autobusakaz koordinetea eskatuko da. Zeanuritik Lemoako Euskotren estazinora doazan autobusek, ez dabe eskaerea estalduten eta horregaitik, maiztasunak indartutea proposatuko da. Atzen eskaerea, astegoi eta jaiegun guztietan zerbitzuen maiztasunak handitutea da.

ERRATA

ARRATIako GARAPENERANTZA

BIDELAGUN: Arratiako belaunaldiak eta talentua konektetako sarea

Errota Fundazioa

Arratiak beti izan dau auzolanetik asko. Alkarrerri lagunduaz egin dira lanak, eta belaunaldiz belaunaldi transmitidu dira ezagutzak, esperientziak eta aukerak. Gaur egun be, komunitate sendo baten oinarrian personeren arteko loturak dagoz.

Idea horretatik sortu da Bidelagun proiektua, Biherko Arratia Plan Estrategikoaren barruan definitu diran bost proiektuetako bat. 2026 urte honetan zehar proiektua definitu eta lehen urratsak emongo dira, Arratian personak, esperientziak eta aukerak konektatuko dituan sare barri bat martxan ipinteko.

Bidelagunek Arratiako persona, eragile eta belaunaldi desbardinaren arteko loturak indartu gura ditu. Gazteek, ekintzaileek, martxan ipini gura diran proiektu barriei eta gure inguruko enpresek dabezan erronkei bidelaguntza, orientazioa eta erreferenteak eskaintzeko espazioa izan gura dau. Aldi berean, urteetan pilatutako esperientzia eta ezagutzea komunitatearen zerbitzura ipinteko aukerea be izan gura dau.

Askotan, persona baten ibilbide profesionalean edo bizitzan ikasitakoa oso baliotsua izan daiteke beste norrentzako. Danok izan dogu inoz bidelagun bat gure bidean: ate bat zabaldu deuskun nonor, aholku bat emon deuskuna edo guran sinistu dauana.

Bidelagun sarean modu askotan parte hartu ahal izango da. Batzuk euren esperientzia enpresa edo ekintzailetza erronketan partekatuko dabe; beste batzuk Errotatik sortzean diran proiektuei lagunduko deutsee; beste batzuk, Hezkuntza Mahaiagaz lotutako ekimenetan parte hartuko dabe; eta izango dira tailer, berbaldi edo esperientzia partekatze saioen bitartez euren ezagutzea eskaini gura dabenak be.

Ez da profil zehatzik behar. Arratiari ekarpena egin gura deusan edozein personak izan daike lekua Bidelagunen: arlo desbardinatuko profesionalak, irakasleek, ekintzaileek, erretiroa hartutako personek edo euren esperientzia partekatze gogoia daukan edozein herritarrek.

2026 honetan Bidelagun sarea osotzen hasiko gara, eta horregaitik, bidean parte hartu gura daben personak ezetu eta saretzea izango da lehenengo pausua. Zure esperientzia, ezagutzea edo denporea partekatze gogoia badaukazu, Bidelagun sarearen parte izatera animetan zaitugu.

Informazio gehiago jaso gura badozu edo parte hartu gura badozu, ipini zaituz Errotagaz harremanetan. Alkaregag egingo dogu bidea.



IGORRE

Arratiko Zekorrak-eko **presidentea** atxilotu eban Ertzaintzak eta epailearen aurrean deklarau ostean aske geratu zan

“Ustezko iruzur eta administrazio desleial delitua egotzita” atxilotu eban; 143 dira salaketak daborduko.



Asier Abrisketa

Gabonetako Loteriak poztasun handia ekarri eban Arratiara baina bost hile beranduago, ezjakintasuna eta buruhaustek nagusitu dira. Arratiko Zekorrak Rugby Taldeak eukazan dezi-moek babestutako baino partizipazio gehiago saldu ebazan. Notizia argitara urtetean, Unai Zuluaga presidentea onartu be “akats bat” zala-ta 225 partizipazio gehiago saldu zirala eta dirua amaituterakoan konturatu zirala. Oin, badakigu gitxienez 286 gehiago izan zirala, hau da, 2.860.000 euro.

Ertzaintzak BEGITU onartu dauanez, oin arte 143 salaketa ipini dira eta danak sartu dira atestau berean, iruzur eta administrazio desleial” posible moduan ikertuko dana. Honen

ondorioz, aprilaren 15 eguerdian Unai Zuluaga klubeko presidentea atxilotu eban Ertzaintzak eta epailearen aurretik pasau ostean geratu zan aske behin-behinean hurrengo egunean.

Kaltetutakoak maiatzaren 7an batu ziran Igorreko udaletxean eta bertan, atek zarratuta eta kalez jantzitako ertzainakaz, kaltetutakoan eta partizipazioen kontaketea egin eban. Danen artean abogadu zerbitzua kontratetea ebatzi eban eta abogaduak egingo da hurrengo batzar bat. Kontaktuan egoteko, Telegram kanala be sortu dabe.

Kaltetuen artean, askotarikoak dira eretxiak baina nagusituen doa iruzurraren hipotesia, besteak beste, errugbi taldearen isiltasunagaitik. Edozelan be, kaltetutakoak arduratuta dagoz, ia diruagaz zer pasauko dan eta

nork ordaindu beharko dauan, taldeak edo danen artean. Kobrau daben batzuk uste dabe ez dala bidezkoa dirua bueltatu beharra; asko izan dira autoa erosi, hipotekea eskatu zein ordaindu dabenak... Baina badagoz dirua bueltetako prest badagozanak be (ikus 3. orrialdea).

Balizko iruzur-delitua

Kaltetutakoak ez dira abogadua kontratatu daben bakarrik, Arratiko Zekorrak taldeko zuzendaritza be badabil abogaduak kontaktuan. Izan be, BEGITU Zuluaga presidentegaz harremanetan ipini zan baina honek erantzun eban, abogaduen gomendioz, ez ebala adierazpenik egingo. Epaileak ebatzi beharko dau zer egingo dan baina aukeren artean dago, taldeko arduradunek -alkarteko lehendakariak, idazkariak eta diruzainak- erantzukizun penala izan badabe zorrari euren oingo zein etorkizuneko ondusunak aurre egin behar izatea. Gainera, iruzur-delituak sei urterainoko kartzela zigorra ekar daike. Halanda be, Antonio Gomez Gallardok (Villamaninen Loteriaren kasuko abogadua) uste dau, “ardurabakokeria” kasu bat dala eta ez iruzur-delitua: “Hori zuzendaritzeak diruagaz iges egingo baeban izango litzateke”.

DIMA

Desafioagaz biribilduko da Luis Prieto Bertso Saioaren XXVI. edizioa

Jon Maia eta Unai Iturriagak kantau bitartean, Xabi “Errot” eta Magali Lekue Larraungan igon eta bajatuten saiatuko dira 01:20ko denporan.

Asier Abrisketa

Maiatzaren 29an, daborduko klasiko bat dan bertso-saioa egindo da Diman. Unai Iturriaga eta Jon Maia egongo dira kantetan Luis Prieto Bertso Saioaren hogetaseigarren edizioan. Baina aurtengoan, proba barri batez osotuko dabe saioa. Izan be, Xabi Gonzalez Goti “Errot” eta Magali Lekue Urizar dimoztar korrikalariak, Larraungan tontorrera (1.008 m) igon eta bajatuten saiatuko dira, ordu bat eta hoge minututan.

Ekitaldia 19:00etan hasiko da eta Iturriaga eta Maiak “Errot” eta Lekueri Agurra kantau

ostean, galapan urtengo dira Larraunganera, bertsolariak frontoi txikian saioagaz segidu bitartean. Txabila alkartekoen ordu bat eta hoge minutuko marka saiakerea proposatu deutsee eta Larraunganera ailegau dirala frogatuteko, txilin bat itxi beharko dabe bertako buzoian. Txabilakoen helburua da, “Errot” eta Lekue marka bat itxi eta datorren urteko edizioan, beste batzuk hau gaindituten saiatutea. Gainera, ibilbidea ez dago markauta; holan, aurten zein hurrengo urteetan parte hartzean dabenek, ikerketatxo egin behar izango dabe aurretik, bide laburrenak topetako.





ETORRI AREATZARA EROSKETAK EGITERA

Maiatzaren 20tik ekainaren 30era

EROSKETAK %20 MERKEAGO





Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

4 URTEK AURRERA ETA ADIN MUGARIK GABE

Matrikulazioa ONLINE
www.arratiakomusikaeskola.eu

*** INFORMAZIOA:**

- Web gunean
- Astelehen eta asteazkenetan
10:00etatik - 13:00etara
- Astearte eta ostegunetan
12:00etatik - 15:00etara

Telefona: 94 631 73 52

MATRIKULA
Epea: maiatzean

BEGITU

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2026AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2026an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina dauka martxan Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
 Helbidea: _____
 Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
 Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
 Aukeratu urteko kuotea: 40€ 60€ 80€

AREATZA MUSIK AND BEER

Areatza Musik & Beer jaialdia sano indartsu dator hileko atzen astegoienean

Maiatzaren 28an gastronomia saio bat egingo da Dimako Garena jatetxean eta hilaren 29 eta 30ean izango da musika eta garagardoa buztartuten dauzan jaialdia Areatzan.

Asier Abrisketa

Musikari jagokonez, batez be rock & roll, blues eta soul musikea egiten daben hamaika taldek joko dabe aurtengo Areatza Musik & Beer jaialdian. Musikea bakarrik ez, garagardoa be izango da protagonista eta atzen urtean legez, Basque Beer Euskal Garagardoaren Elkartean batzean diran ekoizleen hainbat garagardoa dastatzeko aukera egongo da. Gastronomiak be garrantzia berezia dauka jaialdi honetan: 28an, 19:00etan, aurtan bigarren, Garena jatetxean lau garagardoa artisaren eta lau mokaduren maridajea egingo da zuzeneko musikeak lagunduta, aurtan Sergi Estellaren eskutik. Maridajerako txartelak Areatzako Bainuetxean erosi daitezke, 40 euroan.

Gastronomiari jagokonean, behin jaialdia hasita, Areatzako urigunean Bizkaiko food truck bi eta Logroñoko bat egongo dira, bai eta hainbat postu: hanburgesak, pernil eta produktu iberikoak, gozoak, tortillak, saltxitxak, itsaskiak... gustu guztietarako saboreak. Beste alde batetik, artisauen azokeak be hartuko dau Areatza, bordauak, serigrafiautako erropak, narrugintza eta ilustratzaileen lanak topau ahal izango dira. Aurreko egunetan gainera, hilaren 25etik aurrera, Liam Monserrate mural margolaria Areatzan egongo da mural bat egiten, barikuko lehenengo kontzertuagaz batera amaituko daularik.

Baina guzti honen ardatza, bertoko zein nazioarteko taldeen musikea izango da. Maiatzaren 29an 18:00etatik gauera arte eta hurrengo egunean, eguerdian hasi eta gaua ondo sartuta egon arte, musikariak gelditu barik ibiliko dira oholzetan gora eta behera. Kontzertuak, aurreko urteetan legez, gune bitan antolatu dira. Oholtza nagusia Gudarien Plazan egongo da eta bertan egingo dira bariku zein

zapatuko arrasti-gaueko kontzertuak. Zubizarrako parkinean barriz, Kallartean gunea egongo da eta bertan izango dira zapatu eguerdiko eta arrastiko lehenengo kontzertuak. Honen alboan eta errekako pasean egongo dira jateko postuak zein azokea.

MUSIKEA GUDARIEN PLAZA

**Maiatzak 29, barikua
18:00etan, Sergi Estella (Katalunia)**

Kataluniatik datorren Sergi Estella musikariak, *one-man band* formatuan oinarritutako proposamen berezia dakar, blues, folk eta rock doinuak buztartuz eta instrumentu ugari aldi berean erabiliaz. Bere ezaugarri bereziena berak eskuz egindako instrumentuak (zaborragaz edo etxeko objektuakaz sortuak) jotea da.

19:00etan, Ibai Garcia Blues Project (Euskal Herria)

Ibai García barakaldar gitarrista eta konpositoreak zuzendutako blues-rock eta soul boskotea da. Euskal Herriko blues talde indartsuenetakotzat hartzean da, bere zuzeneko kementsu eta sendoari esker. Lomoken Hoboken blues-southern talde arrakastatsuek ia 10 urtez LP bi eta peninsulan zehar bira ugari egin ostean, gitarristak bakarkako ibilbideari ekitea erabagi dau. Blues komunitatean *Don't Leave Me Alone Tonight* lehen *singlea* argitaratu eta harrera bikainaren ostean, taldeak *Chasing The Blues* izeneko bere lehen LP-a argitaratu eban 2024an.

20:30ean, Beaux Gris Gris and The Apocalypse (AEB)

Blues sakona, swamp-rock giro ilunak eta psikodelia ukituak buztartzen dituan proiektua da hau. Hegoaldeko Estatu Batuetako soinu baltz eta hipnotikoak ekarriko dabez, erritmo geldo baina intensidatez betetako pasarteakaz eta eszenatokian nortasun handia erakutsiaz.



Bigblack Rhino taldea.

Musikari jagokonez, batez be rock and roll, blues eta soul musikea egiten daben hamaika taldek joko dabe aurtengo Areatza Musik and Beer jaialdian

Jaialdiko proposamen berezietako bat izango da.

22:15ean, Sari Schorr Band (AEB)

Soul, rock eta bluesaren arteko nahasketa indartsua ekarriko dau Areatzako oholzara. Bere bost oktabako ahots itzelak lehen notatik bertatik harri-petan dau publikoa. Beragaz batera, maila handiko banda etorriko da: Jim Kirkpatrick gitarran, Neil Fairclough (Queen) bajuan, Leon Cave (Status Quo) baterian eta Jem Davis (FM) tekladuetan. Gainera, bere *Joyful Sky* albumak Billboardeko blues zerrendetako lehen postua lortu eban.

00:15ean, Basement Saints (Suitza)

Rock klasikoaren eta southern-rock kutsuko erritmoen arteko nahasketa egiten dau Basement Saints taldeak. Gitarra *riff* sendoak, erritmo trinkoak eta ahots indartsua dira euren ezaugarri nagusiak, zuzene-

koetan publikoagaz berehala konektetako gaitasun handia erakutsiaz. Europako hainbat jaialditan ibilitako taldea da, eta energia handiko kontzertua eskaintzea espero da.

KALLARTEAN

**Maiatzak 30, zapatua
12:30ean, Beaux Gris Gris and The Apocalypse (AEB)
13:45ean, Basement Saints (Suitza)**

15:00etan, Sari Schorr Band (AEB)

16:30ean, Electric Fence (Espainia)

Madrilen 2002an sortutako hard rock taldea da. Euren soinua hard rock klasikoaren (AC/DC, Led Zeppelin) eta rock & roll modernoagoaren (The Hellacopters, Gluecifer) arteko nahasketa gisa definitzen dabe.

GUDARIEN PLAZA

18:00etan, El Saguaro (Portugal)

Lisboako taldea 2023aren amaieran sortutako rock psiko-



AREATZA

MUSIK&BEER 2026

>MAIATZAK 29 & 30 MAY<

>GUDARIEN PLAZA<

MUSIKA ETA GARAGARDO
FESTA INTERNAZIONALA
★★★★★
INTERNATIONAL
MUSIK & BEER FESTIVAL

MAIATZAK 29
MAY

>SERGI ESTELLA (CAT)< >18:00<

>IBAI GARCIA BLUES PROJECT (EH)< >19:00<

>BEAUX GRIS GRIS & THE APOCALYPSE (USA)< >20:30<

MAIATZAK 30
MAY

>BASEMENT SAINTS (SUI)< >00:15<

>KALLARTEAN<

>BEAUX GRIS GRIS & THE APOCALYPSE (USA)< >12:30<

>BASEMENT SAINTS (SUI)< >13:45<

>SARI SCHORR (USA)< >15:00<

>ELECTRIC FENCE (ESP)< >16:30<

>GUDARIEN PLAZA<

>EL SAGUARO (POR)< >18:00<

>THE BATELEURS (POR)< >19:30<

>THE FLYING REBOLLOS (EH)< >21:00<

>THESE WICKED RIVERS (UK)< >23:00<

>BIGBLACK RHINO (CAT)< >01:00<

MAIATZAK 29
MAY

>SARI SCHORR (USA)< >22:15<

>BASEMENT SAINTS (SUI)< >00:15<

>BASEMENT SAINTS (SUI)< >13:45<

>ELECTRIC FENCE (ESP)< >16:30<

>GUDARIEN PLAZA<

>THE FLYING REBOLLOS (EH)< >21:00<

>BIGBLACK RHINO (CAT)< >01:00<



+MORE INFO+



AREATZA
MUSIK & BREWING
MUSIKA ETA GARAGARDO ELAMETZA



Areatzako Udala
Ayuntamiento de Areatza



Bizkaia
foru aldundia diputación foral



EUSKADI
BASQUE COUNTRY
EUSKO SAGULARITZA GOBIERNO VASCO





































delikoa ekoizten dauan taldea da. Euren soinua 60ko eta 70eko hamarkadetako rockean oinarritzen da Jimi Hendrix edo Black Sabbath bezalako en eraginagaz. *Enthusieccstasy* izeneko albuma kaleratu eben 2025ean.

19:30ean, The Bateleurs (Portugal)

Bluesa, folk-a eta rock alternatiboa nahasten dituan laukote portugaldarra da The Bateleurs. Bidaia-kutsu handiko soinuk, erritmo aldaketak eta giro bereziak sortzeako gaitasuna dabe, eta zuzenekoetan publikoari esperientzia berezia eskaintzea bilatzen dabe. Jaialdiaren alderdi anitzena ordezkaturko dauan taldea izango da.

21:00etan, The Flying Rebolos (Euskal Herria)

Portugaleteko rock and roll talde mitikoa da, 1990ean sortua. Ezkerraldeko rock eszenaren erreferente nagusietako bat izan ziran, eta lotura estua euki eben Fito Cabrales (Platero y Tú, Fito & Fitipaldis) eta Robe Iniestagaz (Extremoduro). Bere sasoiari esanguratsua bi argitaratu ebezan: *Verano de perros* (1993) eta *iEsto huele a pasta!* (1997). 1998an taldea desegin zan, eta kideetako batzuk Fito & Fitipaldis taldearen lehen pausuetan parte hartu eben. 25 urteko etenaldiaren ostean, 2024an eszenatokiara bueltatu ziran areto esanguratsua beteaz: Txiberri (Urdu-liz), Kafe Antzokia eta Santana (Bilbo), besteak beste. Itzulera arrakastatsua horren ostean, taldea disko barri baten grabaketan murgildu zan. Lan barri horren lehen aurrerapena martiaren 27an aurkeztu eben, *losune y Ernesto* kantea. Areatzako kontzertuan, disko barriko kantuak zuzenean entzuteko aukerea egongo da, taldearen abesti ezagunenak batera. Giro bikaina eta jaialdi kutsua izango dituan emonaldia espero da.

23:00etan, These Wicked Rivers (Erresuma Batua)

Blues-rock melodikoagoan eta atmosfera zainduetan oinarritzen da euren proposamena. Pasarte epikoak, *crescendo* emozionalak eta ahots adierazkorrak buztartzen dabez, eta atzen urteotan Erresuma Batuko eszenan goraka doan taldea da. Jaialdiko kartelari izaera sendoa emongo deusan izenetako bat izango da. 2014an sortutako taldea da, eta ordutik hiru disko kaleratu ditu. 2026ko maiatzean disko barria argitaratu dau. Bere



Euskal Herriko garagardao artisaua izaten dogu jaialdian. Honeek be 0 kilometrokoak. Gertukoaren konsumoak gure lurraren etorkizuna bermatzen dau. Gainera aurten Basque Beer alkarteak parte hartuko dau bigarrenez jaialdian eta bera da babesle nagusietako bat



atzen lanak 3. postua lortu eban Britainia Handiko Rock & Blues zerrendetan. Gainera, lehenengoz etorriko dira peninsulara, eta Areatzakoa izango da emonaldia eskusiboa. John Hartwellen ahots indartsua eta Arran Dayren gitarrearen energia zuzenean biziteko aukerea izango da.

01:00etan, Bigblack Rhino (Katalunia)

Stoner eta hard-rock kutsuko proposamen astuna dakar Bigblack Rhino talde kataluniarrak. Erritmo lodiek, gitarra distorsionauk eta batera indartsuek marketan dabe euren soinua, eta eszenatokian intensidade handiko emonaldia kaitik dira ezagunak. Europako hainbat jaialditan ibilitako taldea da, eta Areatzara soinu bortitz eta sendoenak eroango dituan izenetako bat izango da.

GARAGARDAOA

Country, blues, soul eta rock estilo musika lagunduteko, onena Euskal Herriko garagardaoa eta hurreko janaria dirala uste dabe antolatzaileek: "Areatzako Musik & Beer jaialdian bertako ekoizpena sustatzen dogu, 0 kilometrokoa, beste modu batera esanda". Holan, AMB-en saiakera berezia egiten da garagardaoa artisaua eta hurrekoa izan daiten.

"Euskal Herriko garagardao artisaua izaten dogu jaialdian. Honeek be 0 kilometrokoak. Gertukoaren konsumoak gure lurraren etorkizuna bermatzen dau. Gainera aurten Basque Beer alkarteak parte hartuko dau bigarrenez jaialdian eta bera da babesle nagusietako bat. 18 dira Euskal Garagardoaren Elkartea osotuten daben markak, euren artean dago BBP garagardaoa, gure

jaialdiko parte garrantzitsua izan dana", dinoe. Holan, garagardao mota ugari egongo dira dastatuteko.

Euskal Garagardaoa-Basque Beer garagardaoek, berezi egiten dabezan ezaugarri amankomunak daukiez. "Ekoizpen prozesuak hasikeratik amaierara zaintzearen emaitza dira horreek. Mimos zaintzean doguz lehenegaien aukeraketea eta ekoizpen prozesua, sabore eta esperientzia bakarrak eskaintzeko helburuagaz. Basque Beer bat hartzean dozunean, bere kalidadea igarriko dozu zurrupada bakoitzean. Ekoizpena Euskal Herrian kokatzen da, bertoko lehengaiak eta hornitzaileak lehenetsiz eta lurraldeko sustapen ekonomiko eta gastronomikoa bultzatuaz. Pribilegiuak gara eskaintza gastronomikoari jagokonez eta hori, bere jatorria galdu barik geroz eta aukera gehiago eskaintzen dituan garagardaoaren sektoreari be aplikau deiogu" dinoe Basque Beer-ekoek.

GASTRONOMIA

Ez da jatekoa faltauko jaialdian: "Gurean izango diran janari furgoneta bi Bizkaikoak bertakoak izango dira eta bertako produktuak salduko ditue. Eukiko dogun karpa gastronomikoan egongo diran produktoreak be ia danak Euskal Herrikoak izango dira". Hiru *food truck* -Jamonotruck, El Mordisko eta U-Lovers & Mafaldo- eta hiru salmenta postu -Crisla Sweets, Thate saltxitxak eta pernila.

Durangoko Crisla Sweets postuan, amerikar estiloko gozogintzea probau ahal izango da; Thate-n Bilboko tradizio handiko alemaniar erako saltxitxak eta pernilzaleek be izango dabe eurentzako txokoa. *Food truck*-etan be, hainbat aukera

egongo dira. "Lujuzko gastronomia esperientzia" eskaintzen dauan Jamonotruck-en produktu iberikoak eta itsaskiak egongo dira, El Mordisko furgonetan bariedade desbardinatetako patata tortillak eta U-Lovers & Mafaldon gourmet hanburgesak.

"Errekako alde biak erabiliko doguz aurten be, igaz lez, zapatu eguerdi eta arrastiko lehen orduetan musika emonaldia izango dira bertan, baina gastronomia izango da leku honetako ardatz nagusia. Ekitaldiaren leku lez, naturan lekua izatea ahalbidetzen dauan udalerrria da Areatza, bere ingurunean bisitetako moduko baliabideak eta Gorbeia Parke Naturalean dagoan ostatu eskaintza zabala daukana eta turismo handiko espazioetatik kanpo dagoana" dinoe antolatzaileek.

ARTISAU AZOKEA

Kallartean guneko alboko azokan, sei izango dira artisauen postuak: Torontile, R-evolucion, Rodillo, Puntada Bastarda, Smoke Signals Studio eta Karmakoland artisauak hartuko dabe parte. Atzen urteetako AMBko kamisetak egin dauzan Torontile serigrafia enpresa arratiarra izango da horreetako bat; 2017an sortu zan eta Arteako Emma Agilar da kudeatzailea. Proiektu solidarioa da, feminismoari lotua eta tailerrak, zuzeneko estanzinoak, ikastaroak eta diseinu eta ilustrazio lanak egiten ditu.

R-evolucion barriz, Bilboko San Frantzisko auzoko nargintza-tailer eta denda ezaguna da; Patricia Repullesen Rodillo oster, Euskal Herrian finkatutako ilustratzaile eta diseinatzaile grafikoa da, estilo bereziko kamiseta eta sudaderak egi-

teagaitik ezaguna; serigrafiaz zein eskuz egiten ditu erropak. Hurrengo Puntada Bastarda da, haria eta biniloa moduko materialak konbinatuz, diskoen azaletan inspiratutako bordauak egiten ditu. Hurrengo, Markel Urrutia ilustratzaile eta diseinatzaile grafikoa Smoke Signals Studio da, musika talde askoren kamiseta, disko azal, pegatina eta bestelakoak diseinetan dauzana. Karmakoland, egoitzea Gasteizen daukan moda marka bat da, Asiatic ekarritako ehunetan eta diseinu koloretsuetan oinarritzen dana. Tatuajeak egiten dituan Lemmur Tattoo-ko Sandra be egongo da Areatzan.

KALEKO ARTEA

Beste dana gitxi izango balitz, AMB-k arte ikutua be izango dau aurtengoan. Izan be, nazinoartean ezaguna da Liam Monserrate kale-artistek mural erraldoi bat egingo dau llargi kaleko horma baten. Inor baino arinago helduko da Areatzara, astelehenean muralagaz hasteko. Barikuan espero

dau amaitutea, 18:00ak aldera, eta amaitu bitartean, Sergi Estellak kontzertutxoa eskainiko dau horma azpian.

Monserrate AEBetan jaio zan baina Katalunian bizi izan da gaztetatik, L'Hospitalet de Llobregaten. 2015ean etorri zan Euskal Herrira bizitera, Atxondora, eta euskera bere egin dau, bertoko hizkuntzea bizi gura ebalako. Graffitigileak 1996an egin eban bere lehenengo murala eta ordutik, 700 horma inguru koloreztatu dau Europako hainbat herrialdetan, aitortzakaz gainera. Leitzaan egindako mural bat 2020ko munduko 100 muralen artean aukeratu eben eta urte berean, Ondarroan egindako *Saregileak* murala sano ospetsua egin zan. Bertako Kamiñazpi auzoko Aire Libreko Museoa proiektuaren sortzaile, zuzendari eta komisarioa be bada. Gernikan, Sorluzen, Galdakaon eta Arratian be egin ditu muralak. Berbarako, Lemoan hiru egin ditu eta Areatzako Buztinola tailerreko murala be berak egin eban.



LASTERKETEAK

Hilaren 30ean korriduko da Ubidestroi Trail



Asier Abrisketa

Aurten bosgarrenez, hilaren 30ean Ubiden hasikerea eta helmugea daukan Ubidestroi Trail mendi lasterketa egingo da. Goizez lasterketa nagusi bi -22 eta 28 kilometrokoak eta arrastiz umeentzako Ubidestroitxo egingo dira eta bitartean, Ubide giro mendizalean murgilduko da. Eguna girotutako, egun osoan zehar txosnea eta taloak egongo dira plazan eta arrasti zein gauean, zuzeneko musikea AK Pintxadiskos-en eskutik.

Lasterketa luzea 09:00etan urtengo da eta korrikalariak 28 kilometro eta 1.800 metroko desnibela izango dabe aurretik.

Ubideetik urten eta Arraldera (945 m) igongo dira, barriro bajatu eta Atxuritik Arimekortara (933 m) igoteko. Bertatik Gorbeia (1.482 m) igongo dira, Bedargogor Atxetik (1.302 m) eta Oketatik (1.031 m) pasauta Ubidera bajatutako. Laburra barriz 10:00etan urtengo da, 22,5 kilometro eta 1.000 metroko desnibeleko bidea egiteko. Ubideetik jarraian joango dira Mantzarroara (778 m), bertatik Arimekortara eta Gorbeia azpitik, Zubialde errekatxo paretik segiduta, Oketa igon eta Ubidera heltzeako. Ubidestroitxo barriz, 17:00etan urtengo da eta 1,5 kilometro pasatxoko bidea egingo dabe Ubide ingurutik.

PELOTEA

Sanferminetako torneoagaz hasi da Amaia Aldai

Bergaragaz batera, 22-16 galdu eban lehen partidua Arrizabalaga eta Bertizen kontra.

Asier Abrisketa

Maiatzaren 9an emon jakon hasikerea aurtengo San Fermin Torneoari eta sanferminetan Labriten amaitu aurretik, hamasei jaialdi egingo dira guztira. Zortzigarren ediziorako saltu handia, 2018an pare bat partidua ziran-ta. Oin, elite mailako andrazkoen zortzi bikote hartzean dabiz parte. Amaia Aldai dimoztarra Arrate Bergaragaz dabil A molltsoan eta estreinako partiduan 22-16 galdu eban, Olatz Arrizabalaga eta Nahia Bertizen kontra.

Lekukoek partidua ikusgarria ikusteko aukerea izan eban Aretxabaletan, peloteo gitxikoa baina aurreko koadroetan oso burrukatua. Aurrez aurrekoa bardinduta ibili zan marka-

gailuak hamaseina erakutsi eban arte, orduan izan zan Arrizabalaga gernikarrak pausu bat gehiago emon eta danak jarraian, 22ra ailegetea lortu eban.

Finala helmuga

Sanferminetan murgilduta, garagarriaren 11n jokatuko da finala Iruñean eta txartelaren lehian, zortzi bikote dagoz. A taldean Zabaleta-Erasunek txapela defendiduko dabe Aldai-Bergara, Arrizabalaga-Bertiz eta Ruiz de Infante-Zabalaren aurrean; B taldean barriz, Etxagarai-Gaminde, Saldamendi-Mendizabal, Sagardui-Arrillaga eta Ibarrola-Capellan dagoz. Talde bakoitzean ligaxkea jokatuko da eta moltso bakoitzean bikote bi sailkatuko dira Doneztebeko finalerdietara.

FUTBOLA

Historiarako igoerea lortu dau andrazkoen Arratia A taldeak

Arratia A taldeak bere historiako lorpen handienetako bat eskuratu eban hilaren 10ean, Pradejonen kontrako promozinoa irabazi eta 2. RFEF mailara igonda.

Erredakzioa

Urbietan jokatutako joaneko partiduan 4 eta 0 irabazi ostean, arratiarrek lan bikaina biribildu eban Errioxan, 2 eta 5 nagusituta.

Partiduaren hasikerea ez zan erraza izan Arratiarentzat. Etxekoak hirugarren minutuan aurreratu ziran markagailuan eta 16. minutuan bigarrena egiteko aukera garbia izan eban, zutoina jo ostean. Une horretan zale askok urduritasuna sentidu eban, baina taldeak barriro erakutsi eban denporaldi osoan erakutsitako sendotasuna.

Golaren ostean arratiarrak gero eta erosoago sentiduten hasi ziran zelaian eta partiduko agintea hartzean joan ziran. 28. minutuan heldu zan bardinketea, Olatz Areitiok sartutako golari esker. Lau minutu beranduago Amaia Alzagak 1 eta 2koa egin eban eta Arratiak irauli egin eban norgehiagokea.

Bigarren zatian be nagusi izan ziran arratiarrak. 70. minutuan Itsaso Kumik hirugarrena sartu eban eta handik gitxira etxekoek aldeak murriztu arren, Arratiak ez eban denporarik galdu erreakzionetako. Lucia Pascualek laugarrena egin eban segiduan eta, partidua amaitzean egoala, Naroa Lejarzak bosgarrena sartu eban 90. minutuan, zale arratiarren poza lehertuta.

Partidu amaieran, BEGITUK Nerea Beitia kapitainagaz berba egiteko aukerea izan eban. Pozarren baina oindino emozinoz beterik, hauze adierazo eban: "Hasikeran kostau jaku zelaia egokitzea. Goizetik sartu deuskue gola eta sufridu dogu baina gero guk sartu dogu eta hortik aurrera hobeto sentiduten hasi gara. Tensino handiko partidua izan da baina helburua lortu dogu. Urte osoko lanak merezidu izan dau eta eskerrik asko Arratiatik hurreratu zarien guztiori!".

Arratiatik joandako zaleen babes

Ospatzekoa modukoa izan zan Pradejonen bizi izan zana. Igozteretik autobus bi urten ziran eta hainbat zale euren autoetan joan ziran Errioxara. Jasone Etxebarriak, esaterako, bere etxeko balkoian Arratia eta Athletic-eko

banderak ipinita agurtu eban lehenengo autobusa, goizeko hamarretan atera zana. Bigarren autobusa eguerdian abiatu zan, jokalaria eta euren senitarte-koak batera.

Eguerditik aurrera beilegiz eta urdinez jantzitako jente ugari ikusi zan Pradejongo kaleetan. Zale arratiarrek poteoa egin, bazkaldu eta zelaia hurreratu ziran jokalaria heldu aurretik harre-rea egiteko. Guztira, 150 zale inguruk lagundu eban taldea eta euren animoak funtsezkoak izan ziran beste behin.

Talde bietako zaleen arteko giro ona nagusitu zan egun osoan zehar. Arratiako ordezkari-za zabala izan zan harmailetan: zuzendaritzako hainbat kide, talde desbardinatutako jokalaria, Pedro Ormazabal presidentea, Asier Etxezarraga "Txata" presidente ohia eta Naia Bilbao, garagarriaren presidente kargua hartuko dauana, besteak beste. Partidu amaieran emozinoa izan zan nagusi eta "Txata" bera

malkotan ikusi genduan, taldeak lortutako balentria ospatzen.

Ospakizunak beste une hunkigarri batzuk be itxi ebazan. Partidua amaitu ostean jokalariek hiru pankarta atera ebezan datorren denporalditik aurrera taldean egongo ez diran Jon Gonzalez "Peli" entrenatzailea eta Olatz Areito zein June Uriarte jokalaria agurtzeko. "Eskerrik asko Peli! De tu mano hicimos historia. Sin dudas ni preguntamos", irakurri ahal izan zan entrenatzaileari eskaintako pankartan. Olatz Areitorentzat "Eskerrik asko Olatz! Betirako aztarna" mezua prestatu eban eta June Uriarterentzat "Eskerrik asko Uri! Zelaian eta zelaitik kanpo eredu izan zara". Arratiako andrazkoen taldeak historiako orrialde ederra idatzi dau.

Hilaren 17an ospakizun handia egin eban zaleak batera lgorren. Gizonezkoen Arratia A eta Mungia Aren partiduan omenalditxo egin eutseen eta gero kamioian Igorretik bueltea emon eban.



Irati Artaraz, Nerea Beitia eta Olaitz Arroyo arratiarrak.

FUTBOLA

Lemoako Harrobik Lehentasunezko mailara igon dau

Maiatzaren 16ko arrastian jokatu eban Montefuerte A taldearen kontra etxetik kanpo eta 0-2 irabazi eban. Garaipen horregaz eta ligea amaituteko partidu baten faltan bigarren postuan amaituko dau sailkapenean.



Argazkia: Esther Matienzo.

Erredakzioa

Hiru autobus atera ziran Lemoatik Arrigorriagara Lemoako Harrobik irabazi eta mailaz igoko eban esperantzeagaz, eta holan suertatu zan. Atsedenaldira husna heldu ziran baina bigarren zatiko 64. minutuan Jon Casillasek, lemoaztaren lehen gola sartu eban eta 75. minutuan Casillasek berak 0 eta 2koa sartu eban. Casillas taldeko pitxitxia da 18 golegaz. Ligea amaituteko jardunaldi baten faltan 72 puntu ditu Lemoako Harrobik eta bigarren postuan dago. Atzen partidua hirugarren postuan dagoan Lekeitio A taldearen kontra jokatuko dau Arlonagusian hilaren 23an, 18:15ean.

Partidu amaieran BEGITU Alazne Salcedo Lemoako Harrobiko presidenteagaz egon zan eta hau adierazo eban: "Oso pozik gagoz igoereagaz eta herri oso baten ilusinoagaz. Zuzendari-tzea oso harro dago taldeak egin dauan lanagaz, igoera urte guztian egindako esfortzu eta lankidetzaren emaitza izan da. Datorren zapatuan erregionala eta Kadete Aren igoerak behar dan moduan ospatuko doguz

kalejira bategaz eta sarrerea doban izango da. Espero daigun futbol zelaia betetea".

Lemoako Harrobik denporaldi osoa egin dau goiko postuetan baina 24. jardunaldian bigarren postuan kokatu zanetik, hor mantenidu da. Ligea Usansoloko Umore Ona Ak irabazi dau.

Arratia

Gizonezkoen Arratia A eta B taldeek hilaren 16an jokatu ebezan euren partiduak. Batak zein besteak ez eukien ezer jokoan. Arratia Ak Mungia A taldea hartu eban Urbietan eta garaipen argia lortu eban 3-0 irabazita. Partidu hori izan zan Azibar Sagarna eta Iñigo Markina igorreztarren agurra etxean. Sagarnak etxekoan lehen gola egin eban. Ligea amaituteko partidu baten faltan 51 puntu ditu Arratia Ak eta seigarren postuan dago. Ligako atzen partidua etxetik kanpo jokatuko dau Atxulaur A taldearen kontra hilaren 23an, 17:00etan.

Arratia Bk osteria etxetik kanpo jokatu eban Zaldia A taldearen kontra eta hiruna bardingin eban. Ligea amaituteko

partidu baten faltan 29 puntu ditu Igorreko taldeak eta hamabosgarren postuan dago. Atzen partidua Urbietan jokatuko dau Indartsu taldearen kontra hilaren 23-24ko astegoienean.

Andrazkoen kasuan jakina dan lez, Arratia Ak 2. RFEF mailara igon dau eta B taldeak Euskal Ligara igoteko promozinoa jokatuko dau datozen asteetan.

Andrazkoen futbol topaketak eta udako kanpua

Arratiak andrazkoen topaketak antolatu dauz maiatzean. Lehengo hilaren 17an egin zan eta bigarrena maiatzaren 31n izango da, 12:00etatik 13:00etara, Igorreko Urbieta futbol zelaian. Ekimena 2011 eta 2021 urteen artean jaiotako neskei zuzenduta dago, eta helburua futbola modu teoriko-praktikoan ezetutea eta kirolaz gozatzea da. Parte-hartzaileek Urbietako instalazioak eta Arratiaren proiektua hurretik ezetuteko aukerea izango dabe.

Bestalde, Arratiak Udako Futbol Kanpua be antolatu dau bagilaren 22tik 26ra, goizeko 09:30etik 14:00etara. 2014 eta 2021 urteen artean jaiotako neska-mutilentzat izango da, eta jolasak, ginkanak, urtekerak eta teknifikazio saioak egingo ditue. Prezioa 100 eurokoa da, gosaria eta kamisetea barruan dirala. Izena emoteko epea bagilaren 10ean amaituko da <https://labur.eus/arratiafutbola> helbidean. Informazio gehiago jasoteko, interesdunek cdarratia@cdarratia.com helbidera idatzi edo 94 631 57 04 eta 747 452 538 telefonoetara deitu leikie.

MOTORRA

Alex Hidalgo barriro txapeldun Dimako Cross Country lasterketan

Maiatzaren 9ko moto lasterketako irabazle arratiarra Jon Zuazo izan zan.

Asier Abrisketa

Moto Club Dimak antolatuta, hilaren 9an laugarrenez jokatutako Dimako Cross Country moto lasterketea eta aurten be, antolatzailak sano pozik agertu dira emaitzeagaz. Joana Kamiruagak BEGITU adierazo dauanez, "oso ondo joan zan eta jente asko etorri zan ikustera". Ordu biz, inguruko motorzaleek Dimako zirkuitua hartu eban eta eguraldiak lagunduta, festa bat izan zan ekitaldia.

"Pilotu askok esan deuskue lasterketea asko gustau jakie-la eta giro oso ona egon dala", inoan Kamiruagak lasterketa ostetik. Holan, geldituteko etorri dan lasterketea dogu Cross Country-a. Izan be, antolakuntza lan handia behar daben ekitaldiak dira holangoak, eta laguntzaile talde handia dauka

Moto Club Dimak atzetik: "Asko eskertuten dogu Udalak eta herriko zein inguruetako laguntzaileek emon deuskuen bultzadaxoa".

Irabazleak

90 pilotutik, 80k lortu eban proba amaitutea eta atzen urtean legez, Alex Hidalgo izan zan irabazlea, ordu bitan zirkuituari bederatzi bira emon eutsazan bakarria; atzetik izan ebezan Mikel Armas eta Alejandro Irigoyen. Arratiarren artean barriz, arinena Jon Zuazo dimoztarra izan zan, seigarren postuan sartu zalarik. Moto Club Dima andrak erakarteko ahalegin berezia egiten be babil eta pasau dan urtean baino andra batek gehiagok hartu dau parte aurten, hiru guztira: Irene Belaza, Izaskun Mazmela eta Iraia Barrio.



Argazkia: Jokin Gurtubai.

Holan, Rekaldek amaitutzat emon dau profesional moduan jokatutako bere lehenengo

buruz burukoa. Beste aldean, Ander Muruak 22-12 irabazi eutsan Unai Alberdiri.



PELOTEA

Finalerako ateetan geratu da Rekalde

Amianoren kontrako finalurrekoa 22-17 galdu eban pelotari dimoztarrak.

Asier Abrisketa

Apirilaren 15ean jokatu ziran Buruz Buruko B Serieko Txapelketako finalurrekoak Irungo Uranzu frontoian. Xabi Rekalde dimoztarrak,

Asier Agirreren lesinoa zala-ta lortu eban finalurrekoetarako txartela partidu bat gitxiago jokatuz baina ezin izan eban finalerako txartela lortu. Unai Amiano 22-17 nagusitu zan, partidu gorabeheratsu baten

ostean. Amiano 9-2 ipini zan aurretik baina Rekaldek hau harrapau eta bardingin mantendu ziran 17-17ra arte. Atzenengo tantuetan baina, Rekaldek hainbat huts egin da aurreratu zan irundarra.

● LITERATUREA

Stefan Zweig-en *Bilduma ikusezina* landuko da Igorreko Literatura Tailerrean

Maiatzaren 18an, 17:00etan egingo da Kultur Etxean Esti Vivancok gidatutako saioa.

Asier Abrisketa

Hileko hirugarren astelehenero moduan, maiatzaren 18an Igorreko literatura zaleak Kultur Etxeko goiko gelan batuko dira, Esti Vivanco idazleak dinamizata, liburu bat lantzeako. Oingo saiorako aukeratutako liburua Stefan Zweig (Viena 1881-1942 Brasil) burges juduak 1925ean idatzitako *Die unsichtbare Sammlung* ipuin laburra da. Hau Malen Amenabar eta Naroa Zubillagak itzuli eben euskerara, *Bilduma ikusezina* (1545 Argitaletxea,

2025) moduan argitaratuta.

Ipuin hau 1920. hamarkadan Alemanian sufridu eben muturreko inflazioaren garaian dago girotuta. Bertan, itsua dan eta Alemaniak Lehen Mundu Gerrea irabazi dauala uste dauan funtzionario zahar baten istorioa kontetan da. Honek margolari ospetsuen grabauen bildumea egiten emon dau bizitzea baina familiak jatekorik be lortu ezin dauanean, honek saltzean hasi beharko da. Holan, arte-urgazle baten bisitea jasoko dau eta gezur errukitsu baten murgilduko da, agurea ez aztoratuteko.



● ANTZERKIA

Virginia Imaz Areatzan izango da maiatzaren 22an Akelarre lanagaz

Erredakzinoa

Virginia Imaz Areatzan izango da maiatzaren 22an, barikua, Akelarre antzezlanagaz. Emonaldia 18:30ean hasiko da udaletxeko Areto Nagusian, eta jubiladuen alkarteak antolatu dau edadismoen inguruan sensibilizetako ekintzen harira.

Oihulari Klown konpainiaren sortzaile eta euskal clown munduko erreferenteetako bat da Imaz. Hamarkada luzez umorea, feminismoa eta kontakizuna buztartu ditu bere ibilbidean, publikoagaz hartu-emon zuzena eta hurbila sortuz. Akelarre lanean Pauxa personaia ezagunaren azalean agertzen da; sorgin ikasle bihurtuta, ikus-entzuleak erritu berezi batera konbidatzen ditu.

Ikuskizunak umorea eta samurtasuna erabilten ditu hainbat gai

lantzeako: sorginkeria, bildur kolektiboak, andren kontrako jazarpena eta historian zehar andrek sufridutako zapalkuntzea. *Clown* estiloaren bidez, ikusleak barre eginarazoteaz gain, hausnarketarako tartea be eskaintzen dau. Gazte eta helduei zuzendutako proposamena da.



● EUSKAL JAIA

Lemoan Euskal Jaia ospatuko da hilaren 23an

Sokatira Txapelketa Herrikoia egongo da jokoan, egunean bertan izena emoten dabenakaz.

Asier Abrisketa

Lemoako Jai Batzordeak, Udalaren babesagaz, "euskal tradizioak, kirola eta gastronomia buztartuteko" jaia antolatu dau maiatzaren 23rako. Jaia eguerditik aurrera ospatuko da eskoletan, 20:00ak aldera herritik poteoan urten arte. Tartean, Naroa eta Ibai trikitilariak girotuko dabe jaitxoa eta bazkalorduan taloa, sagardaoa, freskagarriak eta postrea zerbitzauko dira; baina txartelak erosita egon behar izan dira.

Egitaraua 12:30ean hasiko

● LEHIAKETAK

Martxan dagoz Artea eta Lemoako Jaietako Kartel Lehiaketak

Asier Abrisketa

Garagarilaren 29tik abuztuaren 2ra ospatuko dira Lemoako San Inazio jaiak eta Jai Batzordeak ipini dau martxan Kartel Lehiaketea. Eskuz zein digitalki egindako lanak hartuko dira baina A4 formatuan eta orientazio bertikalean egon behar dira, "Lemoako jaiak 2026" esaldiagaz. "Ez da zertan profesionala izan, ausartzea da kontua!", animau dabe Udaletik parte hartera. Proposamenak, sinadura barik, udaletxean aurkeztu beharko dira astebarruan 08:00etatik 14:00etara, gehienez be, maiatzaren 29ra arte.

Beranduago, urri lehenengoaren 7tik 13ra ospatuko dira Arteako Andra Mari jaiak eta iruditegia osotuteko, Jai Batzordeak Kartel Lehiaketea antolatu dau. Baldintzak hamasei urtetik gorakoa izatea, A4 neurrian eskuz zein digitalki egitea eta "Arteako jaiak 2026" ipintea dira. Kartelak udaletxean aurkeztu daitezke bagilaren 3ra arte; aurkeztutarakoan eskatuko dira datuak. Bagilaren 19an, arrastiz -17:00etatik 20:00etara- egingo da bozkaketa irekia eta saria "otzara eder bat" izango da.

da, Joxe Ezpeletaren ardi-mozte erakustaldiagaz. 13:30ean ba-



● BERTSOLARITZEA

Iradi Barrenetxeak Bizkaiko Eskolarteko Txapelketako finalean kantauko dau

Maiatzaren 30ean jokatu dau arteztarrak finala Aulestiko frontoian, 11:30etik aurrera.

Erredakzinoa

Lau kanporaketen ostean, dagoeneko osotuta dago Bizkaiko Eskolarteko Txapelketako finaleko zortzikotea: Amaiur Betanzos, Eider Fernandez, Helene Yerga, Iradi Barrenetxea arteztarra, Izaro Pagalday, Jon Abasolo, Maddi Aurtenetxe eta Naroa Iturrioz. Barrenetxeak Durangon jokatu zan bigarren kanporaketea irabazita eskuratu eban txartela. Aulestin hilaren 30ean, goizeko 10:00etan hasiko da eskolarteko nagusien idatzizko finalagaz, eta 11:30ean ekingo deusie bat-bateko finalari.

Atzen txartela, maiatzaren 6an,

rriz, Sokatira Txapelketa Herrikoia jokatu da. Parte hartzeako, nahikoa izango da egunean bertan izena emon eta sokan tiratuten ipinteagaz. Bazkalostean barriz, frontoira mobiduko da giroa. Izan be, Euskal Pilota Selekzioa Euskal Herritik Mundura Txapelketan dago murgilduta, mundialerako prestakuntza moduan, eta partiduak jokatu dabez Lemoan. Honek amaituta, Bakioko Txeroiak taldekoek trikitixak hartu eta poteoa gidatuko dabe tabernaz taberna.



● JANTZAK

Dimako **Gazte Barri** jantza taldeak 30. urteurrena ospatuko dau hileon

Hilaren 23an egingo da urteurreneko ekitaldi nagusia oingo eta lehengo jantzariakaz.



Asier Abrisketa

Dimako Gazte Barri Dantza Taldea 30. urteurreneko ospakizunetan dago murgilduta aurten eta maiatzaren 8an adinekoen egoitzaz egoitza egindako kalejirearen ostean, ekitaldi nagusia egingo dabe maiatzaren 23an. Jantzaldia 20:30ean egingo da herriko frontoian. Guztira, ia 50

jantzarik hartuko dabe parte, gaur egungo Gazte Barriko kideek zein lehenagoko hamar batek egingo dabe jantzan.

Jantzaldian Euskal Herriko hainbat jantza tradizional egingo ditue, gainera, jantzi barriakaz. Izan be, zezeilean herriko jostunei laguntzea eskatu eutsien Gazte Barrikoek, jantzi barriak egiteko. Holan, jubiladuen alkarteko

hainbat kidek eta jantza taldeko kideen guraso batzuk astelehenero egon dira batzean, ideatetik abiatuta jantzi barriak egiteko. Honeek, maiatzaren 23ko ekitaldian erakutsiko ditue.

Horrezaz gainera, urrietan beste ekintza "sorpresa" bat antolatuko dabela be aurreratu dabe Gazte Barriko antolakuntzakoek BEGITUN.

● MUSIKEA

Maria Vaquerizok kontzertua eskainiko dau Lemoan

Maiatzaren 29an, 20:00etan igongo da abeslari lemoztarra Kotxepingo oholtzara.

Asier Abrisketa

Maria Vaquerizo (Lemoa, 1997) abeslariak bere lehenengo emonaldia Lemoakustik Fest-en egin eban 2023an eta bertan egon zan hurrengo urtean be, oindino bere kantak argitaratu aurretik. Oin, *Vamos, Mil historias* eta *Déjate Llevar!* abesti propioak kaleratuta, barriro izango dau aukerea bere herriaren aurrean kantetako, maiatzaren 29an Kotxepin Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera. Hiru horreek bakarrik ez, jentearrean inoz eskaini ez dituan konposizino barriak eta beste artista

batzuen bersinoak be joko ditu.

Vaquerizo betidanik izan da musikazalea baina oholtzara igoteko bildurra kendu behar eban lehenengo eta holan, 2022tik aurrera kalean abestuten hasi zan, bildurak uxatu eta bere ahotsa publikoaren aurrean sentiduteko. Holan, taberna, ezkontza eta bestelango ekintzetan abestu ostean hasi zan apurka-apurka oholtzara igoten. Lemoakustik-eko kontzertuen ostean hasi zan abesti propioak argitaratuten, pop estiloaren inguruak baina doinu lasaigoetatik hasita, musika elektronikoz be esperimentetan.



DUNBA

Azoka Solidarioa Igorren maiatzaren 22an

Inazio Zubizarreta eskolako 6. mailako ikasleak

Gu Igorreko Inazio Zubizarreta eskolako 6. mailako ikasleak gara. Idazki honen bidez, konbite oso berezi bat luzatu gura deusuegu Arratiako herritar guztioi.

Ikasurte amaierara gertu dago, eta oportetan pentsatzen hasi aurretik, zeozer potoloa egitea pentsau dogu. Munduan laguntzea behar daben persona asko dagozala badakigunez, Azoka Solidarioa antolatu dogu. Guk geuk prestatu dogu dana: kartelak egin, gauzak jaso, prezioak jarri... Lan handia da, baina ilusino handiz egiten gabiz!

Hona hemen zehetasun guztiak:

Eguna: Maiatzak 22.

Ordua: 16:30.

Lekua: Eskolako patioa.

Zer topauko dozue azokan?

Azokan danetarik topau ahal izango dozue: liburuak, jostailuak, apaingarriak eta bigarren eskuko hainbat objektu egoera bikainean. Gure helburua ez da bakarrik dirua biltzea, baita gauzak berrerabilteak daukan garrantzia azpimarratzea be. Horregaitik STEAM irakasgaien materiala berrerabili dogu objektu desbardinak sortzeako. Horreek be salgai egingo dira.

Norentzako da dirua?

Azokan lortzean dogun diru guztia ez da guretzako izango. Alkarte bi laguntzea ebatzi dogu:

EULEUK: Senegaleko umei eta familiei laguntzeko.

Gernika-Palestina: Palestinan gerran dagozan personei janaria eta laguntzea bidaltzeko.

Guretzako oso garrantzitsua da

IGORREKO ESKOLA
Inazio Zubizarreta 16.18

AZOKA SOLIDARIOA
MAIATZAK 22
16:30ETATIK AURRERA

EULEUK ETA GERNIKA-PALESTINA

ANIMATU ETA ETORRI!!!!
Laguntzaileak: Guraso Elkarte, A.M.E eta beste komertzio batzuk eta Begitu.



herri moduan laguntzea. Batzutan, telebistan ikusten doguzan gauzak urrun dagozala emoten dau, baina gure aletxo ipinita, gauzak aldatu daiegeuz.

Beraz, badakizue! Maiatzaren 22an, 16:30ean, etorri eskolako patioa. Zuen zain egingo gara irribarre bategaz eta postu desbardinakaz.

Gora alkartasuna eta gora Inazio Zubizarreta eskolea!

● AGENDEA

MAIATZAK 18 ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik bankura liburutegia zabalik.

AREATZA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela eguneroko udaletxean zabalik.

Arratiako Ondare Astegoienean (bagilak 27 eta 28), Aikoren jantza ikastaroetarako izen-emotea aiko.eus webgunean.

ARRATIA/ZEBERIO

Arratiako Musika Eskolearen matrikulazioa zabalik. Izena maiatzaren 31ra arte emon ahal izango da, <https://interklabe.com/arratiakomusikaeskola/> webgunean. Zalantzarik izan ezker, 94 631 73 52 telefonora deitu, astelehen eta eguaztenetan 10:00etatik 13:00etara eta martitzen eta eguaztenetan 12:00etatik 15:00etara.

ARTEA

Jaietako Kartel Lehiaketean. 16 urtetik gorako heritarrentzat. Kartelak "Arteko jaiak 2026" jaso behar dau eta DIN A4 (digitalean zein fisikoan) aurkeztu behar da. Teknika libre. Udaletxean aurkezteko atzen eguna: bagilak 3. Irabazlea aukeratuetekeo bagilaren 19an, 17:00-20:00, plazan botoa emotea.

Maiatzaren 22ra arte, 2014-2021 bitarteko udalekuean izena emoteke epea. Udaletxean. Txandak: bagilaren 22tik 26ra, bagilaren 29tik garagarilaren 3ra, garagarilaren 6tik 10era eta 13tik 17ra.

BEDIA

16:30etatik 19:30era, informazio gunea eta liburutegia astelehenetik bankura zabalik.

17:30ean, *Bizi-testamentua* (azken borondateak) berbaldiraren lehen saioa (bigarrena bagilaren 1ean) Josune Tutor medikuagaz eta Amaia Goienetxe erizainagaz. Eskoletan.

Maiatzaren 29ra arte, LGTBIQ+ aniztasuna ikusaraz eta babesguneak hedatzeko banku bat margozteko ekimenean (bagilak 10) parte hartzeako izen-emotea. Info gunean 16:30etik 19:30era.

Maiatzaren 29ra arte, jaietako paella egunean parte hartzeako izen-emotea. Info gunean 16:30etik 19:30era.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela eguneroko zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik bankura liburutegia zabalik. Astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta bankuetan 09:00etatik 13:30era.

Arratia futbol taldean 2008-2021 urteen artean jaiotakoentzako izen-emotea zabalik maiatzaren 29ra arte. Klubeko bulegora hurbilduta edo <https://labur.eus/arratia26> estekaren bidez. Bulegoaren ordutegia: astelehena eta martitzena: 10:00-12:00; eguaztena: 16:00-18:00; eguena: 18:00-19:00 eta bankua: 16:00-18:00.

Literatura Tailerra. 17:00etan, Stefan Zweig-en *Bilduma ikusezina*, Malen Amenabar eta Naroa Zubillagaren itzulpena.

Maiatzaren 20ra arte, HH2-LH6 bitarteko udalekuean izena emoteke epea. Kultur Etxean. Txandak: bagilaren 22tik 26ra, bagilaren 29tik garagarilaren 3ra, garagarilaren 6tik 10era, garagarilaren 13tik 17ra eta garagarilaren 20tik 24ra.

Bagilaren 10era arte, Arratia futbol taldearen Udako Futbol Kanpusean (bagilak 22-26, 09:30etik 14:00etara) izena emoteke aukerea. Prezioa 100 euro, armozuak eta kamiseteta bame. Izen-emotea <https://labur.eus/arratiafutura> galdetegian.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela eguneroko Koxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik bankura Udal Liburutegia zabalik.

Maiatzaren 29ra arte, Jaietako Kartel Lehiaketan parte-hartzeako epea zabalik. Udaletxean, 08:00retatik 14:00etara.

Maiatzaren 31ra arte, komertzio eta hostalaritza establezimentuetan euskeraz agurtu eta eskatzeagaitik hazka eta irabazi txartelen banaketean, 800 sari guztira.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik eguneroko.

Dorsalak amaitu arte, maiatzaren 30ean jokatuko dan Ubidestro Trail 2026an izen-emotea zabalik kronoak.com webgunean.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik 21:00ak arte ikasgela zabalik eguneroko. DBHkoentzako, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Maiatzaren 22ra arte, Joko Alai eta BBKren BBK Mendimartxak 14 kilometroko mendimartxarako izen-emotea <https://bmf-fvm.org/eu/bbk-mendi-martxak/> webgunean.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehen, martitzen eta eguazten liburutegia zabalik.

Maiatzaren 27ko *Pantailaren erabileraren prebentzioa haurtzaroon* (gaztelaraz) berbaldirako izen-emotea. txubelasugurasoelkarte@gmail.com helbidean edo 647 269 628 telefonon.

Maiatzaren 21era arte, Austarri Mendi Klubak antolatutako maiatzaren 24ko mendi urtekerarako izen-emotea austarimenditaldea@gmail.com edo 665 735 054 / 656 415 597 telefonon.

Bagilaren 27tik 30era Gorlizen izango diran udalekuean izen-emotea zabalik <https://labur.eus/udalekuzeberio2026> helbidean edo udaletxean 2009-2014 urte bitartekoentzako, 2015etik 2023ra

jaiotakoentzako, bagilaren 22tik garagarilaren 10era. Astez aste izena emoteke aukerea: 65 euro aste bat, 104 euro aste bi eta 156 euro hiru aste. Izena: labur.eus/udalekuzeberio2-2026 edo udaletxean emon maiatzaren 29ra arte.

MAIATZAK 21 AREATZA

08:30ean, Uparan jubiladuen alkarteak antolatutako urtekerea Suancesera. 12:30ean, itsasontziz paseoa; 14:00etan, bazkaria; 16:30ean, Erdi Aroko Cartes herrian bisita gidatua eta 19:00etan, etxera bueltea.

ARTEA

19:00etatik 20:00etara, jubiladuen alkarteak antolatutako maiatzaren 27an Sarara joateko urtekerarako izen-emotea (40 euro). Jubiladuen lokalean.

BEDIA

19:30ean, *Lettering* tailerraren lehen saioa. Izena emon behar izan da.

DIMA

19:00etan, EAJ-PNVk antolatutako topaketea Amaia Antxustegi Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako foru diputaduagaz.

IGORRE

18:30etik 19:30era, AEKk antolatutako Arratiako Mintzodromoa. Kubulu euskaltegian.

LEMOA

17:30etik 19:00etara, Iratxe Etxebarriaren *Bizirik Bizi: auto-ezagutzatik elkar-zaintzara* ikastaroaren bigarren saioa (hurrengoak bagilak 4 eta 18). Koxepin Kultur Etxeko Aramotz gelan. Haurtzandegi zerbitzua dago. Izena emon behar izan da.

17:30etik 18:30era, AEKk antolatuta Arratiako Mintzodromoa. Koxepinen.

Kultura eta Memoria. 19:00etan, *Hezur berriak* bertso-saio literarioa Ane Labaka, Ines Osinaga, Onintza Enbeita, Jone Uria eta Erika Lagomazagaz. Koxepin Kultur Etxean.

MAIATZAK 22 ARANTZAZU

Bariku Rockeroak. 21:30ean, Ez Dok Bape taldearen kontzertua. Herriko Tabernan.

AREATZA

18:30ean, Uparan jubiladuen alkarteak antolatutako Virginia Imazen *Akelarre* down ikuskizuna. Udaletxeko Areto Nagusian.



Txotxongilo eta antzezle ikuskizuna Lasarte Aretoan

Maiatzaren 22an, Anodino Teatrok antzezleak eta txotxongiloak buztartuten dituan *Mamuak ezagutzera joan zen umea* lana taularatuko dau Igorreko Lasarte Aretoan, 18:00etan. Lau urtetik gorakoentzako ikuskizun honek bildurrei aurre egitera ausartuten dan ume baten istorioa kontetan dau. Leire Orbe eta Maite Fombellida aktoreek taularatuko dabe lana, Mikel Fernandinoren txotxongiloakaz eta zuzeneko musikeagaz.

"Egun gogorra suertatu da Malda eta Zorrotzek lan egiten daben almazenean: aurkitu beharreko erlikia galdu bat, konpontzeko dagoan musika-tresna eta hori gixi ez balitz, istripu baten ondorioz objektu guztiek bizia hartu dabe ustebakoak sortuarazoz... eta baxotxaren mamuak esnatuaz", dino sinopsiak.

ARTEA

18:30ean, *Pedagogismoaren gezurtapen bat* liburuaren aurkezpena Teresa Maldonado idazle eta Bea Azpiri kazetariagaz. Herriko Bentan.

19:00etatik 20:00etara, jubiladuen alkarteak antolatutako maiatzaren 27an Sarara joateko urtekerarako izen-emotea (40 euro). Jubiladuen lokalean.

IGORRE

Torra eta Olabarriko jaiak. 16:30ean, Igorreko eskoleak, guraso alkarteak, AMEK eta begiruk antolatutako EULEUK (Senegaleko ume eta familiak) eta Gemika-Palestina Herri Ekimena lagunduteko Azoka Solidarioa; 18:30ean, zunbatoia. Eskoletan.

19:00etan, EH Bilduren Arratiako Bat Egin eguna. *Arratiatik Euskal Herrira, antifaxismoa eraiki!* berbaldira Arkaitz Rodriguez eta Nikole Ziarustaren eskutik Kultur Etxean; ostean, kopaua Axular Herriko Tabernan eta 20:30ean, poteo musikatua.

LEMOA

Kultura eta Memoria. 18:00etan, Antxota Pantxa pailazoen *Lurrzapitik* ikuskizuna. Koxepin Kultur Etxean.

ZEBERIO

17:30ean, udalekueko informazio batzarra (2015-2023 urteak) eta 18:15ean, (2009-2014 urteak). Plazako Ermita Zaharrea.

MAIATZAK 23

DIMA

Gazte Barri Dantza Taldearen 30. urteurrena. 20:00etan, kalejirea; 20:30ean, jantzaldia. Frontoian.

IGORRE

Torra eta Olabarriko jaiak. 12:30ean, txupinazoa eta pregoia txistulari eta buruhandiakaz; 13:00etan, poteo musikatua; bitartean, umeentzako arpegiak margoztuteko tailerra; 15:45ean, Briska, Mus eta Igel Txapelketak; 16:30ean, umeentzako barretaria jolasa, eskoletan; 18:30ean, globoflexia tailerra; 19:00etan, parrilladea eta triktilariak AMEren eskutik; 21:00etan, Dantzatzeko prest diskofestea; gero, DJ Bass.

LEMOA

Euskal Jaiak. 12:30ean, Joxe Ezpeletaren ardi-mozte erakustaldia; 13:30ean, Sokatira Txapelketa Herrikoia; eguerdian, taloak eta sagardoa (txartelak erosita egon behar izan dira), Naroa eta Ibai triktilariakaz; 16:30ean, Euskal Herriko Mundura zesta-punta partiduak; 20:00etan, poteoa Txerokiak taldeagaz.

MAIATZAK 24

ARTEA

13:30ean, Rolling Mountain Bluegrass Band taldearen kontzertua. Herriko Bentan.

IGORRE

10:30etik 13:30era, Eingo antolatutako dobako Larrain jantzearen oinarriko mailako ikastaroa; parte hartzeako deitu 673 654 867 telefonora edo idatzi eingotar@gmail.com helbidera. Eingo etxean.

Zinea. 17:00etan, *Maracuda*; 19:30ean, *La Grazia*.

ZEANURI

09:00etan, Joko Alai eta BBK antolatutako BBK Mendimartxak 14 kilometroko mendimartxea.

ZEBERIO

08:00etan, Urkulu (340 m), Orkatzategi (869 m), Aitzuloko begia, Aroztz (400 m) 12 kilometroko ibilaldia. Plazatik urtenda.

MAIATZAK 27 AREATZA

18:30ean, Uparan jubiladuen alkarteak

antolatutako txokolatea eta jantzaldia.

ARTEA

09:00etan, jubiladuen alkarteak antolatutako urtekerea Sarara. Autobus geralekuan.

BEDIA

17:30ean, *Heriotza bildur bank bizitzea* berbaldira Nere Erkiagagaz. Eskoletan.

IGORRE

Latinoamerika, Antilla eta Karibeko Zinemaldia. 18:00etan, *Acuerpadas, hasta que se haga justicia* dokumentalaren proiektzioa eta Dalila Arguetagaz solasaldia. Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

17:30etik 19:30era, *Pantailaren erabileraren prebentzioa haurtzaroon* (gaztelaraz) berbaldira Gregorio Montero mediku psikiatregaz. Plazako Ermita Zaharrea.

MAIATZAK 28

BEDIA

19:30ean, *Lettering* tailerraren bigarren saioa. Izena emon behar izan da.

DIMA

Areatza Musik&Beer. 19:00etan, maridajea Garena jatekuan, garagardoa eta mokadu dastaketak eta Sergi Estellaren kontzertua. Txartelak Areatzako Bainuetxean, 40 euro.

MAIATZAK 29

AREATZA

14:30ean, Uparan jubiladuen alkarteak antolatutako jolas tradizionalak (iturriak, sokasaltua...) eskolaumeakaz.

Areatza Musik&Beer. 18:00etan, Sergi Estella; 19:00etan, Ibai Garcia Blues Project; 20:30ean, Beaux Gris Gris & The Apocalypse; 22:15ean, Sari Schoor; 00:15ean, Basement Saints. Gudarien Plazan.

DIMA

19:00etan, XVI. Luis Prieto Bertso Saioa Jon Maia eta Unai Iturriagaz eta Larrangan I desafioa: Xabi Gonzalez Goti "Errot" eta Magali Lekue Urizarrek Larraungun 01:20ko denporan igon.

IGORRE

Latinoamerika, Antilla eta Karibeko Zinemaldia. 18:00etan, *El caso Freyter* dokumentalaren proiektzioa eta Jorge Freyterregaz solasaldia. Lasarte Aretoan.

LEMOA

20:00etan, Maria Vaquerizoren kontzertua. Koxepin Kultur Etxean.

UBIDE

Ubidestro Trail. 19:00etatik 20:30era, dorsalen banaketean.

MAIATZAK 30

AREATZA

Areatza Musik&Beer. 12:30ean, Beaux Gris Gris & The Apocalypse; 13:45ean, Basement Saints; 15:00etan, Sari Schoor; 16:30ean, Electric Fence. Kallartean gunean. 18:00etan, El Saguaro; 19:30ean, The Bateleurs; 21:00etan, The Flying Rebolos; 23:00etan, These Wicked Rivers; 01:00etan, Bigblack Rhino. Gudarien Plazan.

UBIDE

Ubidestro Trail. 07:15etik 08:30era, dorsal banaketean; 09:00etan, lasterketa luzearen urtekerea; 10:00etan, lasterketa laburrean hasikerea; 15:30ean, sari banaketean eta zozketea; 17:00etan, Ubidestroixoren urtekerea; arrastian zehar, zuzeneko musikea AK Pintxadiskos-egaz.

MAIATZAK 31

IGORRE

10:30etik 15:00etara, Gorbeialdeko Gazta eta Esnekien III. Azokea. Garbeo aparkalekuan.

Zinea. 17:00etan, *Supervings, a toda velocidad*; 19:30ean, *Un poeta*.

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

ALOKATZEKO ETXE BILA

Arratian, Igorren balitz hobeto, bere seme-alaba biakaz bizitza barri eta duin bat biziten hasi ahal izateko etxebizitza baten bila nabilen ama naz. Telefonoa: 662 312 325.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rock School. Gitarra klaseak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528 telefonora edo idatzi a.harillo.gracia@gmail.com helbidera.

TABERNARI EUSKALDUNEN BILA

Axular Herriko Tabernan tabernari bi behar dira astegoienerako. Interesdunek tabernan bertan galdetu, axularke@gmail.com helbidera idatzi edo telefonoz deitu: 94 673 70 92.

BIZIKLETEA SALGAI

Umeentzat, koloretsua, Dora Exploratailearen marrazkiekaz. Lauzpabost urteko umearentzat. Errobera txikerrak, aurrean zestillea eta atzean pelutxearentzat kutxa. Egoera eta itxura onean. Eskatu edo

ikusteko deitu: 670 825 753.

LESBIANA EDO LESBIANAGAIEN BILA

60 urtetik gorako lesbiana eta lesbianagai bila. Edadeko andrea zara eta aisialdirako edota militantzarako espazio ez-hetero baten bila zabiz? Deitu edo bialdu mezua: 608 062 592.

GARAJE-PLAZEA ALOKAIRUAN

Kotxeak sartzeako garaje-plazea alokatzen da Zeanuriko plazan, Ibarreta auzoan. Interesdunek deitu edo idatzi 634 448 820 telefonora.

BEDARRA EBAGITEKO MAKINEA SALGAI

Stihl RMA 339 makinea. Bateriaduna da, ez gasolina ezta elektrikoa. 5 urte ditu. Prezioa adostu daiteke. Telefonoa: 661 273 192.

ANTXUME EDO AUMAK SALGAI

Antxume edo aumak salgai, bizitarako edo okelatarako. Deitu: 667 939 370.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Mamuak ezagutzera joan zen umea antzezlanerako.**

Jose Felix Perez (Igorre)
Amaia Arana (Lemoa)



2

Lemoako Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Maria Vaquerizoren kontzerturako.**

Asier Txarterrina (Lemoa)
Itsaso Bengoetxea (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. **BEGITUK 24 urte eta ehundaka lagun.**



94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA Hartz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu - Boxarra egin eta bokunduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94 673 70 87
Tel: 609 79 40 54

ZEKUTZE JATETXEA
Sabino Arana, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

KIRRU ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TEL. 94 631 92 00

GORBEIALDE
LANDA GARAPENA
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO GARAPENEAN LAGUNTZEN

BEGITU

III. ESNEKI eta GAZTA AZOKA

HERRI BAT MERKATU BAY

2026ko Maiatzak 31

10:30etatik aurrera

IGORRE

Garbeko aparkalekuan



Artisau-izozkien
dastaketa

*Degustación de helados
artesanos*
12:00etan

Eskaneatu
erresebatzeko
Escanea para reservar
Leku mugatuak /
Plazas limitadas



Ardi-moztaileen erakustaldia

Exhibición de esquiladores de ovejas
Goizean zehar/Durante la mañana